

# TXIRRI TXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

1999ko apirila 27. zenbakia

**SABINO ARANAREN ESKABIDEA**

**KORRIKA 11**

**ITXAS-ALDE ARGENTINAN**



**ALKARRIZKETA  
LIZARRA-GARAZI**

# JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

NEUMATIKOAK  
GAS-TUTULUAK  
ORIOA ALDATZEA  
BALAZTA ZAPATAK

Beharpen ederrak



## ZERBITZU BIZKORRA:


- orioa aldatzea
- irazkina (filtroa) aldatzea
- gas-tutulua
- leungailuak
- neumatikoak
- burpilak orekatzea
- balazta zapatak
- direkzioa doitzea
- mekanika arloa
- soldatze lanak
- motorea garbitzea (ur beroaz)

## JULEN tailerra

Artzalde, 8

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 48 97



# MOTUL

## BERBAURREA

Udabarrian sartu gara. Kukuak joko dau barrian, askoren pozerako. Herri siniskerak dinoanez, kukua ibiliko da han-hor-hemenka zoriona ekarten eta zabalduten. Udabari honen azkenerantza izango dogu herri agintaritzaren barria aukeratutako sasoi. Udabarrian zehar ibiliko dira, bada, herriko Udalerako aukerak alkarren lehian. Herriko agintari barriak edota lehengo batzuk aukeratuko doguz. Behar-beharrezkoa deritxogu, baina, agintari barri guzti-guztiak euskaldunak izateari, orain arte egin dan euskerearen aldeko ahaleginari eusteko. Hemetik, Udalerako aukera politikoei **hautagai euskaldunak** aurkeztutako eskatuten deutsegu. Euki be, euskerearen etorkizunean agintari euskeraz agintuteak uste dogun baino leba eta eragin handia daukaz eta. Oraingoan be, euskerearen kukuak joko ahal deusku!

TXIRRITXOLA

## TXIRRITXOLA-27

1999ko apirila (hiruhilabetekaria)

## ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Batzordea

## ZUZENBIDEA

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

## ALE KOPURUA:

600 ale

## LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

## IRARKOLEA

Gráficas Gaubeka

Tfno.-zkia.: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

## TXIRRITXOLA

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria


## ZER-NON

GAIA

ORRIALDEA

Aurrealdea: Atxulo .....	1
Iragarkia .....	2
Agurra .....	3
Berbetan: LIZARRA-GARAZI Bakion .....	4
Eritxia .....	8
Hemerrotekea .....	8
Zer deritxozu?: Ariketarik onena umore onerako? .....	9
Zer barri?:	
- Herri Barriak .....	10
- 7. Argazki Lehiaketea .....	11
- BIZKAIBUS Bermeotik Bakiora .....	11
- Herriko euskaldunen errolda .....	11
- Udal hauteskundeak .....	11
- Baserria bere izenagaz .....	12
- Baserriaren museoa .....	12
- Erakusketea .....	12
- Kultur Etxeko barriak .....	13
- Txontxongilo saioa Bakion .....	13
- Bakioko euskerearen azentua .....	14
- Bakioko euskera Interneten .....	14
- Bakio Berbarik Berba liburua .....	14
- Bertso afaria .....	15
- KORRIKA 11 Bakion .....	16
- Itsasoko harea dala-eta .....	18
Argazki erreportaia: San Jose Eguna .....	19
Gai berezia: Sabino Aranaren eskabidea .....	20
Zaharrak barri .....	21
Zuhur ibili .....	22
Taldeen txokoa:	
- Abesbatzagazko alkarrizketea .....	23
- Alaitasuna Pilota Tadea .....	23
- Eskolako gurasoak .....	23
- Surf taldea .....	23
- Football taldea .....	23
- Gaueka .....	23
- Itxas-Alde Argentinan .....	24
Euskerea: Bakioko euskera-5 .....	26
Kultura leihoa:	
- Olerkia: Bakioko bizimodua .....	28
- Euskal ipuina: Tartalo .....	29
- Bakioko liburutegiaren txokoa .....	29
- Liburu bat eta film bat aztertuten .....	29
Danetarikoak:	
- Datozanak .....	30
- Barregaiak .....	30
- Badaezpadako jakingarriak .....	30
- Ezetz jakin! .....	31
Atzera begira .....	32

TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako esanik  
zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.



BAKIOKO UDALAK  
diruz lagundutako aldizkaria



# LIZARRA-GARAZI

## Bakioko politikoen agoetan

**Martiaren 29an EAJ, HB eta EAKo ordezkariakaz batu ginan Lizarra-Garaziko Itunak gure herrian sortu dauan ilusinoaz berba egiteko. Barriketa luzea izan zan arren, sano interesgarri eritxi deusagu. Hori dala eta, hemen bertan daukazue oso-osorik Bakioko alderdi politikoez izendatutako ordezkariak giro lasai eta barean egindako iruzkinak. Azpimarratzekoak dira, era berean, hainbatetan hirurek alkarrerri egindako konplizitate, sopikuntasun eta adostasun keinuak, gaur egun bizi dogun egoera itxaropentsuaren adierazle argiak.**

**Txirritxola:** Lizarra-Garaziko Ituna sinatu eta, ostean, su etena bideratukeran ezarritako helburuak, hau da, euskal erabagigunea eta bakea lortuko diralakoan zagoze?

**Kepa Uriarte:** Bueno, egia esan ez dakit horreexek diran Lizarrako Itunaren helburuak; izan be, Lizarrako sinatzaileen helburua ez da bakea bera? Eta bakerako bide batzuk zehaztea? Horixe itaunduko neuke, ze ez dakit hori besterik ez dan; dana dala, aitatu behar dot apur bat asao lotzen jatala, gehienbat barruko kontuak behar lez ezagutzen ez dodazalako. Edozelan be, ituna handik abiatzen dalakoan nago, ze argi dago bakea ez dana polizi ekintza hutsez lortuko. Orduan zein da bakea eskuratzeko modua? Ba, azken baten danok onartu eta guztion helburuak eskuratzeko moduko joko zelaia prestatzea. Nik, Lizarrako Ituna bakotzak bere bidea jorratu eta ebagitzeko aukera garatzea ahalbideratuko dauan prozeduratzat hartzen dot; izan be, akordio orokorrera ailegatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beste indar batzuk be foro horretan esku hartzea eta, hortik abiatuz, urtenbidea diseinatzea. Jakina, urtenbide horretako, batzuen ikuspuntua da euskal erabagigune hori errespetatzea.

**Patxi Barandiaran:** Nire ustez, Lizarra-Garazi Itunaren ga-

rrantzia da lehenengoz hainbat alderdiren artean akordio batera heldu dala gatazka non dagoan kokatuta esanez, gatazka politikoa dala azpimarratuz; horrela, gatazka politiko horri erantzuna emateko metodoa planteatzen da, hau da, alkarrizketa eta negoziazioa, beti be Euskal Herria anitza dala kontuan hartuta eta, era berean, alderdi guztiek parte hartu daikeela prozesu honetan. Beste alde batetik, esan beharra dago Lizarra-Garaziko Itunak helburua guztiz demokratikoa planteatzen dauala, hau da, azken berba herriarena dala. Hori horrela ulertuta, beraz, euskal erabagigunea errespetatua izateko bidetzat hartu daiteke, bai eta bakerantz abiatzeko modutzat be.

**Begoña Zubiri:** Niri begitانتzen jat batasun honen bidez emon dan aurrerapausoa sano garrantzitsua dala Euskadin bideratu gura doguzan lorpenak eskuratu ahal izateko. Beraz, nik bakea lortzeko itxaropena daukat; hori bai, guztiok ikusten dogu gatxa izango dala, gehienbat, estatu mailako alderdiek honen kontrako jarrera hartu dabelako. Halan eta guztiz, ziur nago bakea eskuratuko dana.

**Tx:** Zelan baloratzen dozue sindikatu abertzaleek eta gizarte mailako hainbat erakunde bultzatu dabenean Lizarrako Ituna sinatu ahal izateko?

**Kepa Uriarte:** Nik uste dot sindikatuak egindako beharra ona eta ausarta izan dala, ze prozesu honeri arlo sindikalak emon eutson zelanbaiteko hasikera. Edozein modutan, alderdiak be sartu egin dira prozesu horretan ausardiaz jokatzu eta horrek bere fruituak emon beharko dauz. Eta hor beste meritu bat be egon da: abertzaleez ganera, IU-EB itunaren barruan sartzea, horixe da-eta frentismo salaketari aurpegi emoteko laguntza. Dana dala, itaunari erantzuna emoteko, sindikatuen beharra oso positiboa izan da une pozgarri honetara ailegatzeko laguntzeko. Beraz, itxaropentsu egoteko momentua da-eta, nire eritxiz, alderdiak, sindikatuak eta gizarte mailako erakundeak proiektu baten inguruan alkatuta ikustekak gizartea bera bizkortu eta herritarrei modu positiboan eragintzeko deuse.

**Patxi Barandiaran:** Nire eritxiz, bost urte bete barri dauazan ELA

gerora kutsatu dauz gizarte mailako hainbat erakunde. Dana dala, hau beste ikuspuntu batez lotuko neuke, ze ETAK su etena aldarrikatukeran argi esan eban ez zala Espainiako estatuari zuzendutako su etena, ezpada euskal gizarteari. Beharbada, ETAK momentu horretan ikusi eban zelango giroa mamitzen ebilen eta zelango planteamendu barriak sortzen ebilzan, euskal gizartearen eskuetan izteko borroka politiko hau. Hauze da, beraz, kontuan hartu beharreko beste puntu bat.

**Begoña Zubiri:** Egia esan, ez dakit zehatz-zehatz zelan gauzatu zan sindikatuen arteko alkarlana, baina argi daukat ELAK eta LABek herriaren onerako beharrean diharduena, eta, beraz, oso gauza positiboak egiten dabiltzana. Era berean, aitatu behar dot ELKARRIK bultzatu dauan bidea oso gustuko izan dogula, egin dauazan akatsak alde batera itzita. Beraz, ostera be

**K.U.:** «Lizarrako Ituna bakotzak bere bidea jorrazteko aukera garatzea ahalbideratuko dauan prozeduratzat hartzen dot.»

eta LABen arteko akordioa zelanbaiteko akulua izan da alderdi politiko zein gizarte mailako erakundeek alkarlarenako pausu hau emon daien. Beraz, oso garrantzitsua izan da, ze sindikatuen arteko akordioak

dinot oso gustuko izan dodala ELKARRIK burutu dauan beharra.

**Tx:** Argi dago bakea jadesteko behar-beharrezkoa izango dana estatu mailako alderdiak

**prozesuan esku hartzea. Zelan ulertu behar da orain arte euki daben jarrera?**

**K.U.:** Bai hori argi dago eta itunak aldarrikatzen dauan beste puntu bat da, hau da, Euskal Herriko etorkizuna erabagiteko

egoera jasanezin bihurtzeko.

**P.B.:** Bai, bide beretik joz, nire ustez eurek, alde batekoek zein bestekoek be, honetan hartu behar dabe esku, gatazka honetako partaideak diralako. Ez da ahaztu behar, berbarako,

**P.B.: «Lizarrako Ituna euskal erabagigunea errespetatua izateko bidetzat hartu daiteke, bai eta bakearentzat abiatzeko modutzat be»**

zerikusia daukenek hartu behar dabela parte prozesuan. Beraz, zalantza izpi barik, horreek honetan inplikatzeko ezinbestekoa da; guztiagaz be, orain arte ez dabe honetan sartzeko asmorik azaldu, komunikabide bidez zabaldukoaren arabera. Beste

PSOEK gatazka honetan euki dauan jokabidea, hau da, independentismoaren kontra egin dauala GAL eta guzti, estatu mailako terrorismoa erabiliz. Era berean, badakigu PP nondik datorren; azken baten frankista ohiak dira eta estatu batu eta



Udalean dagozan hiru alderdi politikoaren ordezkariak ezkerretik eskoira: Kepa Uriarte-EAJ Begoña Zubiri-EA Patxi Barandiaran-HB

kontu bat da ea zelan ulertu behar dan orain arte hartu daben jarrera. Esan leiteke ezustean harrapatu dauazala; izan be, hasikerahasikeratik su etena faltsua izango zala aitatu eben, eta, geroago, itunaren helburua frontea sortzea zala. Bide horretatik oratu deustoe egoera honeri, argi eta garbi egonda be, hainbestetan salatzen daben frontearen antzeko jokabidea daukena PSEk, PPk eta, zeresanik ez, UAK. Era berean, gogoan izan behar da hauteskunde giroan murgilduta gagozala, eta, aurki, Euskal Herriaren kontra berba egiteak Espainian bertan botoak irabazteko bidea emoten deutse. Ganera, abertzaleak alkartuta ikusteak min handiago egiten deutse beste edozein gauzak baino, eta gu alkarregaz eta alkarlanean jarduteko bildur dira. Horrelan, ahalegin guztiak eta bi egiten dabilta eta bide guzti-guztiak darabilez gu nekatu eragin eta

uniformistaren defendatzaile amorratuak. Beraz, horreek be jesarri beharko dira gatazka honen zuzeneko partaideak diralako. Jarrerari jagokonez, Kepagaz konforme nago eta azpimarratu gura neuke itzelezko bildurra deustoea demokraziari. Izan be, beti be jokatu dabe kristaldegia baten dabilen elefante baten modura, hau da, indar guztiagaz, "botere" berba bakkarik ulertzen dabelako. Horregaitik, orain ez dakie zer egin, zelan jokatu. Egia da botoak eskuratzeko asmoa be hortxe dagoana, baina hauteskundeak igarota zeozer asmatuko dabe prozesu hau luzatzeko.

**B.Z.:** Esan daiteke estatu mailako alderdiak urtenbide bako kale estu baten sartu dirala, Lizarragaraziko ituna zer dan ulertu gura ez dabelako. Uste dot, beraz, ez dabela ezer positiborik egin, ze prozesu honetan sartu leitekez, eritxi guztiz kontrajarriak euki

arren. Dana dala, ez dabe ezer be egin, akaso gu alkarlanean ikusikeran izutu egiten diralako. Arazoa da gero eta itxiago dagozala eta zirkulua gero eta txikiago egiten diharduela, eta, ez dakit handik zelan urtengo daben, baina nekez lortuko dabe.

**Tx:** Gehiegitan esaten ez bada be, Ituna bideratzeko arrazoirik nagusienetarik bat indar espainolistak hartzen ebilzan indarra neutralizatzeko asmoa izan da? Hau da, bakea eta euskal erabagigunea eskuratzeko guraria bezain garrantzitsua izan da lehengo bidetik abertzaletasuna beheranzko joera baten murgilduta egoala egiaztatzea?

**K.U.:** Nik ez dot uste indarra galtzea danik, akaso, batetik, izan daiteke gailurra jo edo jo ez, eta, bestetik, beste zezoztan ahalegintzeko beharra. Edozelan be, nik ez neuke esango indarra galtzea izan danik, ez alderdi baten ez besteren aldetik. Beharbada, etsipenagaitik batzuk gixiago igon eben botoetan; prozesu honek, bada, itxaropena sortu eta jende gehiago ipini dau martxan. Dana dala, ostera be dinot ez dodala pentsatzen pauso hau guztia indar galtze baten ondorioz emon danik.

**P.B.:** Gure alderdiaren kasuan be, argi dago ez dana horrelakorik egon; ganera, guk beti planteatzen izan dogu botoena, garrantzitsua izanik be, ez dala dana. Izan be, ez gagoz egoera normalizatu baten, hau da, ideia guztiak era zabal eta orokor baten defen-

na ez da arrazoi bat izan, benetakoa arrazoiak izan da urteak joan urteak etorri danok konturatzea hemen ez dana aurrerapausorik emoten. Izan be, indarrean egon diran estrategiek porrot egin dabe, kasu baterako Ajuria Eneako itunak gizartea urtekerako bako bide batera eroan dau ekintza polizialak babestuz. Beraz, argi ikusi da bide horretatik ezin zana ezer be egin, eta horixe izan da prozesu hau bultzatzeko arrazoirik behinena eta ez indarra galtzearena.

**B.Z.:** Nik ez dot uste indarra galtzea izan danik, ze momentu honetan garrantzitsua bakea eta honen atzean dagozan gauza guztiak lortzea izan da.

**K.U.:** Hor bai, nik beste gauzatxu bat ikusten dot: estatutuaren bidea agortuta dago, ze batetik transferentzia batzuk emon dira, gero ostera be beste lege batzuen bitartez murrizteko. Horrek be eragina euki dau bide hau ez dala baliagarria esankeran; izan be, heldu gara heldu leiteken lekuragino eta hemendik aurrera egiteko beste zezozer behar da. Horrek be eragina izan dau gure alderdian.

**P.B.:** Nik oso garrantzitsua dan gauza bat aitatu gura neuke: eraikuntza nazionalerako dagozan tresnak oso murriztak izatea. Berbarako, PFGZaren (IRPF) edo zergen kasuan jokabidea argia izan da: konstituzinoaren aurkakoak dirala esatea. Beraz, joko politiko horretan gehien sartuta egon diranak eraikuntza nazionalerako beste tresna batzuk behar dirala ikusi dabe, eta bakea


**B.Z.: «esan daiteke estatu mailako alderdiak urtenbide bako kale estu baten sartu dirala, ez dabe ezer be egin, akaso, gu alkarlanean ikusikeran izutu egin diralako»**

datzeko egoeran. Zergaitik hori? Hortxe dagoalako konstituzinoaren muga bat, independentismoa zelanbait jokoz kanpo dago marko honetan; orduan, botoena ez da benetakoa neurri bat, egoera normalizatu baten izan daiteken arren. Dana dala, gaurko egoeran ez da benetakoa neurria. Hori dala eta, abertzaleak gora edo behera egin ahal izango dau egoeraren arabera, ez gagozalako egoera normalizatuan. Indarra galtzeare-

hori eskuratzeko funtsezko oinarria da.

**Tx:** Azken aldian estatu mailako komunikabideetan presino mediatiko izugarria egiten dabilta kale borroka dala eta. Zelan eragin ahal deutso presino honek euskal alderdien alkarlanari?

**K.U.:** Abertzaleen aldetik, nik uste honek gehiago alkatu egin gaituala, ze, azken baten, harrikadak beti izaten dira



EAJ-ko Kepa Uriarte

geuretzat; alde horretatik, beraz, mesede bat izan da. Dana dala, gure gizartean badago bide honetan hain sartuta ez dagoan jende mota, baina presino horrek segitzen badau pertsona horreek be, begiak zabalik badaukez, konturatuko dira Espainia aldean zeozer txarto dabilena. Ganera, hau ez da kontu barria, historian hainbatetan gertatu jaku, ze Franco geunkan artean alkartuago ibiltzen ginan, Franco hilda

**K.U.:** «*estatutuaren bidea agortuta dago ze, batetik, transferentzia batzuk emon dira, gero ostera be beste lege batzuen bitartez murrizteko*»

diferentzia nabarmenagoak agertu ziran arren. Orain antzerako zeozer gertatzen jaku, ez da era eta sasoi haretako diktadura, baina diktadura mediatikoa hortxe daukagu. Ganera, lehenago prentsa mota batek gauza bat edo bestea esaten baeban, ba, zalantzan ipinten zinduzan, baina orain guztiok dakigu kanpaina baten barruan datorrena eta, beraz, ez dogu sinesten. Alde horretatik, prozesu honetan sartuta gagozanok gehiago batzen gaitu; penagarria da hemendik kanpo ez dagozan beste pertsona horrengaitik.

**P.B.:** Galdera ondo planteatuta dago, ze estatu mailako komunikabideak dira presino hori egiten dabiltzanak edo estatuari zein estatuko indar ekonomikoei lotuta dagozanak, "El Correo" eta "El Mundo" esate baterako. Dana dala, euskal esparruaren barruan behar egiten daben komunikabideetan aldaketak somatu dira, kasu baterako EITBn, arazoa beste modu batera, modu oreka-

tuagoan, planteatzen dabiltzalako. Estatu mailako komunikabideen beharrari jagokonez, estatu mailako alderdiak hain gogor ibilita, zer itxaron daiteke? Askotan, dana dala, ez dago argi nor dan noren morroia, baina joko bera egiten dihardue. Zergaitik? Kale borrokagaitik? Ba, kale borrokarik ez balego, beste arrazoi edo argudio bat topatuko leukee gure kontra egiteko, eta hortxe hainbat adibide ikusi doguz: Josu Ternera gaz egondako arazoak, kurdoen gaia... Edozein modutan, bada azpimarratu beharreko puntuak: honek guztiek ez dabela ezer be egiten bakearen alde. Esan leiteke momentu honetan estatu mailako komunikabideak gatazka edo gerra bultzatu gura dabela.

**B.Z.:** Egia esan, argi dago kale borroka prozesua galgatzeko erabilten dabiltzana; edozein modutan, behin kale borroka amaituta, beste gauzaren bat plazaratuko dabe. Arazoa, azken baten, gu baketan ez egotea da, eurek gura ez dabelako ezelan be gu baketan egotea. Alde horre-

tatik, kale borroka ez da bape ona, eurei atxakia ezin hobea emoten deuselako.

**P.B.:** Lehen be esan eben ETA gelditu arte ez ebela ezer be egingo. Une honetan ETA geldirik dago ez dabe zirkinik egin. Dana dala, itaun honek nahiko garrantzitsua dan beste zati bat dauka: ea presino honek eragina euki dauan alderdi abertzaleen alkarlanean. Azpimarratzekoa da Lizarra-Garaziko ituna sinatu ebenen artean zelanbaiteko blindajea dagoala, hau da, arazo koiunturalek ezin dabe prozesua gelditu. Esate baterako, Gerez-taren kasua, oso larria dana eta susmo handiak sortu dauazana, aor daukagu, baina prozesua ez da gelditu, aurrera doa eta alderdi guztien erantzuna erantzun politikoa da, lehengo barrikuko kontzentrazioa, egingo dan ordubeteko lanuztea. Orduan, alderdi abertzaleek oso garbi dauke: aurrera egin behar da oztopo guztien ganetik.

**Tx:** Beharrezkoa da, beraz, kale borrokari amaiera emotea?

**K.U.:** Nik uste dot baietz, ona litzatekela kale borrokari amaiera emotea; guztiagaz be, duda barik, alderdi espainolistek beste jarrera bat hartu beharko leukee, eta, era berean, komunikabideek, ze emoten dau baten batek orkestra baten modura zuzentzen dauazala

**K.U.:** «*eraikuntza nazionalerako beste tresna batzuk behar dirala ikusi da, eta bakea hori eskuratzeko funtsezko oinarria da*»

hedabideok. Manipulazino hori gelditu beharko leukee; dana dala, kale borroka etetea oso onuragarria litzateke eta handik aurrera ikusi beharko geunke nondik jotzen daben, zeozer asmatu eta zeozertan ahaleginduko diralako. Horrelan, prozesuan hain sartuta ez dagoan jendeak, oso identifikatuta ez dagoanak baina borondate onez dabilenak, beste datu bat eukiko leuke ikusteko: "lehenago hauxe izan da atxakia, orain beste hauxe da, gero bestea da". Gauzak argiago lotuko litzatekez eta maskara behegaro geratuko litzakie.

**P.B.:** Galdera honeri gauza bat gehitu behar jako: beharrezkoa dala beste bortizkeria modu batzuk gelditzea. Azken baten, kale borroka egoera jakin baten ondorioa da, ez da zergaitia ondorioa baino, eta zergaitiak desagertzen badira ondorioak be bai. Edozein modutan, kale borrokaz ganera, badira beste ondorio batzuk: presoan enitartekoan egoera, atxilotuek jasan behar izaten dabezan torturak, exiliatuen egoera. Azken baten, hortxe beste bortizkeria zuri batzuk daukaguz, esaterako euskeraren aurkakoa. Bortizkeria mota horreek guztiak amaitu behar dira, ze prozesu baten gagoz eta prozesu honek fase ezbardinak daukaz, hasikerako fase baten alkarrizketa, danok mahai baten inguruan batu eta gatazkaz berba egitea planteatzen da, baina hemen bakarrik gagoz alde batekoak, besteak be jesarri behar dira euren biolentziak gelditu eragiteko; izan be, kale borrokaren eragina beste bor-

tizkeriakaz konparatzen badogu askoz txikiagoa da, nahiz eta propaganda aldetik askoz handiago bihurtu. Orduan, nire ustez, kale borrokaz bakarrik berba egitea tranpa edo amarru baten sartzea da, hemen beste ondorio batzuk dagozalako kale borroka baino tamalgarriagoak diranak.


**K.U.:** Dana dala, nik, bai, uste dot kale borrokak Lizarra-Garaziri

egiten deusola kalte; nik hurrago, parajeago sentitzen dot hori eta gurago neuke hori lehenago gelditzea bestea baino, ze beste biolentzia hori aurrean dagoanarena da, ha be oso kaltegarria dogu, baina kale borrokak gure justifikazioak murriztu egiten dauz.

**B.Z.:** Komenigarria da kale borroka amaitu daiten, ze estatu mailako alderdiek atxakia horri oratu eta ez dira handik mugitzen eta ez deuskuez presoak ekarten eta ez dabe ezer be egiten. Beraz, komenigarria izango litzateke kale borroka gelditzea; dana dala, hori egitea gatxagoa izango da neurri baten behar lez kontrolatzen ez dan gauza bat dalako.

**Tx:** Aurreikusi dozue egoera gogortu eta atzera pausoak gertatu daitezkezala edo prozesu barri honek ez dauka atzera biderik?

**K.U.:** Nik ez dot uste atzera biderik izango danik. Beharbada



HB-ko Patxi Barandiaran

ez gara aurrera joango gura dogun beste eta behar dogun bezain arin eta beharbada sofritu beharra egongo da, bidean gertatu

pausorik egongo danik, ze oso urrats garrantzitsua emon dogu eta egon daitekezan oztopo eta zailtasunak gorabehera ez dago

**K.U.:** «ez da era eta sasoi haretako diktadura, baina diktadura mediatikoa hortxe daukagu; alde horretatik, horrek gehiago batzen gaitu prozesu honetan sartuta gagozanok»

daitekez-eta era bateko edo besteko gauza batzuk, baina, nik uste dot, lehen aitaturako arrazoiengaitik sartu bagara prozesu honetan, aurrera egin beharra dagoala. Baikortasunez ikusita, honek aurrera egingo daualakoan nago, eta oztopoak egonda be, ez dot atzera biderik ikusten, ze konfidantza emoten deuste alde batetik eta bestetik entzuten dodazan azalpenek eta adierazpenek. Hortxe hainbat froga euki doguz: Gerezta-ri buruzko zalantzak eta kale borrokaren ekitaldi batzuk, baina gauzak, behintzat, ez dira harago joan. Ganera, «Euskal Herri-

atzera egiterik. Beraz, kostata be, aurrera joango gara eta horren ostean pastela banatzen ahaleginduko gara, baina horretarako lehenengo eta behin pastel hori egin beharra dago. Eta egin egingo dogu, ze daborduko osogairik nagusienak daukaguz. Beraz, prozesuak aurrera segituko dauan uste osoa daukat oztopo guztien ganetik.

**Tx:** Euskal gizartearen ge-  
hiengoak behin eta berrari  
aldarrikatu dau presoen hurbilketa. Hori izango litzateke PPko gobernua egin beharreko lehenengo "keinu" politikoa?

**P.B.:** «esan leiteke momentu honetan estatu mailako komunikabideak gatazka bultzatu gura dabela»

tarrok» taldearen aldetik emon diran azalpenak eta abar konfidantza emoteko modukoak izan dira.

**P.B.:** Ilusinoa emoteko prozesu baten gagoz eta derrigorrean baikorrak izan behar dogu. Dana dala, dogan ez dogu ezer be lortuko, hau da, aurkariengandik etorriko jakun ordainsaria ez da debaldekoa izango, eurek ez deuskue-eta egun batetik bestera emongo gura doguna, borrokan egin behar da eta ez bakarrik alderdiek, gizarte osoak emon beharko dau beharrezko erantzuna. Beste aldetik, prozesu hau martxan jarten hasi garenok itzelezko postura egin dogu, EAJk, EAK, HBk, IU-EBk eta abarrek postura handia egin dogu hainbeste urte alkarren arteko borrokan emon ostean eta gixtieneko azterketa baten inguruan batu eta ados paratu gara bakea eta Euskal Herria eraikitzea lortu daitekezalako. Nire ustez, emondako pausuak daborduko finkatuta dagoz eta ez dago ez atzera biderik ez eta atzera pausorik be.

**B.Z.:** Ez dot uste ezelan be atzera

**K.U.:** Hori ez litzateke keinua izango, hori berez egin beharreko gauza litzateke. Cuedaren berbak dira mendeku modura daukezala presoak egoera horretan eta gutiz bat nator berak esandakoagaz. Hainbeste aitutzen daben zuzenbidean oinarritutako estatu batek ezin leike horrela jokatu. Orduan presoek, behintzat, hemengo espetxeetan egon beharko leukee senitartekoei zigor gehigarria ipini barik eta zigorraren hiru laurdenak beteta daukezanek kalera urte beharko leukee. Dana dala, keinuek beste era batekoak izan behar dabela uste dot: hartuemonetan paratu, berbetan hasi eta hurreratzea. Izan be, lehenengoetan aurpegia emon gura ez badabe, neurri baten ulertu leiteke, batez be Espainian dauken edo eurek informazino faltaren bidez zabaldutako egoeragaitik. Edozein kasutan, gobernuak jokatzeke asmoren bat daukala erakutsi beharko leuskio ETari. Horretaz, presoena, momentuz, handik aparte itziko neuke.

**P.B.:** Bueno, lehenengo eta behin

hori ez litzateke keinu politikoa, ezpada legea betetzea. Halan eta guztiz, jendeak ontzat emongo leuke horrelako pausu bat emotea. Dana dala, zenbat eta beluago, hainbat eta txarragoa izango da eurentzat, herriak ulertuko dau-eta hori ez dala keinu politikoa herriaren lorpena



EA-ko Begoña Zubiri

baino, batez be makina bat ekitaldi, kontzentrazino, gose greba eta abar egin ostean. Egia da presoak parajetzeak gauzak hobetuko leukezana.

**B.Z.:** «arazoa, azken baten, gu baketan ez egotea da, eurek gura ez dabelako ezelan be gu baketan egotea»

**B.Z.:** Ez da ezelan be keinu politikoa, ze legea eskuan eukita presoek hemen egon behar eben antxina-antxinatik. Guztiz egoera lotsagarria da eta ez dakit zelan ez diran lotsatzen egoera hori dala eta. Hori torturak eta enparauak alde batera itzita, ze momentu honetan bakarrik aitatu da presoak hurreratzearena. Egoera horrerik, beraz, guztiz lotsagarri deritxot.

**Tx:** Zelan igarri leiteke Bakion euskal gizartean piztu dan ilusinoa?

**K.U.:** Duda barik, hartuemonetan igarri egiten da, beharbada ilusino giro hori daukagulako igartzen da eta alkarregaz egingo doguzan beharretan be islatuko da; ikuspegi desbardinak eukita be, alkarregaz gauza gehiago egiteko gauza izango garala uste dot. Eta

ez dinot hau zeozer esateagaitik, ezpada daborduko ikusten dalako behar hori. Dana dala, hori apur bat bultzatu beharko dogu inguru horretan eraginen bat daukagunok. Ze, jakina, hemen orain-tsu arte jokabide batzuk egon dira eta goizerik gauera ez dira desagertuko, ez dira urtuko eta hartuemon gixiagoko egoten dira batzuek beste batzuek baino. Dana dala, horrek balio izango deusku bata eta bestearen ideiak hobeto ulertu zein finkatzeko eta alkarregaz orain arte baino gauza gehiagotan behar egiteko. Alde horretatik, seguru nago Bakiok irabazi egingo dauana.

**P.B.:** Bakio hain txikia dan lez, hartuemonak argiagokoak dira herri handi baten baino. Eta jakina, hainbeste urtetan hartuemon berezi batzuk egonda, egun batetik bestera ez dira aldatzen. Nire ustez, dana dala, jendea itxaropentsu dabil, beharbada prozesu hau pikutara joateko bildur, baina ilusino handia dago eta herritarrak pozik. Ganera, kontzentrazinoetan ez da bereizten nortzuk diran alde batekoak eta nortzuk besteakoak, ze hantxe gagoz danok batera. Nire eritxiz, tentsinozko lehengo

hartuemon horreek baretu, moteltu eta lasaitzen doaz ilusino handia dagoalako abertzaleen artean. Eta igarri egiten da tabernetan-eta; beharbada, muga batzuk apurtu egin dira.

**B.Z.:** Patxik esan dauan lez, Bakio txikerra da eta guztiguztiok ilusino handia daukagu, baina, akaso, ez dakigu zelan ipini gure zatitxua, zelan aurreratu gauzak; edozein modutan, itxaropen handi-handia daukagu. Horregaitik, bene-benetan uste dot hemendik hamar urtera gauza ezin hobeak eukiko doguzala Euskal Herrian, eta, zalantza barik, inoiz baino batuago egongo gara.

Joseba Terreros

**OHARRA:** Arlo honetara bialduko diran eritxiak izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izena edo irudiari kalte egin leikionik be.

## UDALBATZA BARRIARI BEGIRA



Datorren bagilean aukeratuko dabe bakiotarrok udalbatza barria, hau da, datozen lau urterako zinegotziak eta alkatea. Herritarren eskuetan dago, bada, aukerea.

Beste alde batetik, Bakion euskaldunek gehiengo handia egiten dabe (ia %70). Gehien-gehienok euskereari leku eta bide handiak egitearen alde ei dagoz, herrian egindako azkenengo azterketeak erakusten dauanez.

Bakioko euskaldunek eurok daben indar handi hori euskerearen alde egiteko bide onean imini beharko leukee. Bide hori bada, zalantza barik, norberaren eskuetan dagoan indarra: **botoa euskerearen alde emotea**. Behar-beharrezkoa da Bakio lako herri euskaldunetan udalkidea (zinegotziak eta alkatea), dandanak, euskaldunak izatea. Zertarako? Euskerearen alde orain arte egin dan ahalegin handia, egin behar dana eta, azken baten, euskerea bera, behar dan lez, aurrera atara ahal

izateko. Udalkideetatik bat bakarrik euskalduna ez izatea nahikoa izango litzake, egindako ahalegina laskitu eta galduteko. Eta hori ez, gero! Aurrera egin behar da eta ez atzera.

Ez da makala, gero, Udalerako herriko aukera politikoei euskereagaz dauken erantzukizuna. Erantzukizun hori bete ahal izateko, **Udalerako zerrendetan pertsona euskaldunak** aurkeztu behar dabez. Leba handi-handikoa da hori. Bakioko aukera politikoen konpromiso sendoaren beharrezanean dago euskerea. Euskerearen aldeko borondate politikoa argi eta garbi erakutsi behar dabe eurok. Ezin deuskue horretan hutsik egin.

Joseba URRUTIA

## GURE HARETZAKO HAREA



Bakioko altxorrik maiteenetariko bat, geure haretzea, harez hustuen jabilkuz. Arrigunagako hartezea barrizatuteko daroaskue hemendik harea, aurki. Ekintza jatorra, zintzoa besteko ahalegin handiz betea. Baina ez dogu uste hori egiteko aukeratu dabezan bidea eta era egokienak eta garbienak izan diranik. Hasteko, horren guztiorren ganean Bakiotarrok izan dogun informazinorik ezea, bai lehenengo hare-atarate egunetan, bai gerokean be. Geroago baten, baina, gure artean alarma gorria biztu zanean, batzar batera deitu euskuen. Beluago baten, bigarren batzar batera be. Batzar horreetan hare-atarate horri oneritxia emon eutsoen txostenen egile teknikariakaz alkarregaz izan gintzazan. Eurok azaldu euskuezan arrazoi eta zergaitiek ez eben, baina, guretariko inor pozik itzi. Bertara agertu gintzazan herritarrokaz

egindako berbaldian argi lotu ziran, alde batetik, beharren arduradunek egindako jardunbide akatsak, ingurugiro ganeko eraginari buruzko txostenek ezea -Eusko Jaurlaritzak onartutako legeak holangorik eskatuten badau be-, edota bagila ta garagarrian haretzea ikertu ahal izateko zehaztasunik ezea (zehaztasunik ez dauke ezelango zerikusirik neguan haretzan batuten diranakaz-eta). Beste alde batetik, Aldundiak berak aurkeztu dauazan zehaztasunen arabera, hau da, eguneroko hare-atarateen ganeko txostenek erakusten dabenez, lehenengo egunetan, harea atarateko baimenduta egoan tokitik kanpo ataraten ibili ei ziran. Eta hori ez eze, legeak baimenduten dauan 25m-ko gitxieneko sakoneratik gora be harea ataraten ibili ei dira, ganera. Legez kanpoko hare-atarate horretan ia 25.000 m<sup>3</sup>-ko hare kopurua atara ei eben itsas hondotik. Hare kopuru hori beraren lekura arin be arin atzera ekarteko eskatuten dogu, udaletxean egindako bigarren batzarrean teknikariek ebatzi eben lez. Baina, horrez gan, gure ardurarik nagusia, baita Bakiotar askorena be, itsas hondotik atara gura daben 210.000 m<sup>3</sup>-ko hare kopuru hori atarateagaitik, hemendik eta gitxira, sortu leitekezan ondorio txarrak eta kalteak dira. Esan barik doa, haretzea herriko iturri turistikorik garrantzitsuen da, baita ohidalango iturri ekonomikoa be. Haretzea hondatu ezkeron, herriko ostalaritza arloko establezimenduei zein Bakioti ondorio txarrak ekarriko leuskiez horrek. Ea arazo honeri danon oneritxia amaiera pozgarria emongo jakon. Gure Herriaren onerako: *herria jagon daigun, ingurugiroa jagon daigun*, datozen urteetan be Bakio euskal itsasaldeko toki zoragarria izan daiten.

Bakio Surf Taldea

## HEMEROTEKEA

Euskerea bizirik dago Bakion?

Bai, Bizi-bizirik dago Bakion, baita inguruko herrietan be. Beste kontu bat da, euskereak urteetan jasan behar izan dauan bazterketeak eragina izan dauala, kaleko erabilera beharko leuen besteko altua ez izateko. Dana dala, etxe barruko eguneroko bizimoduan, hau da, familiartean oso bizirik dago. Gure erroka nagusia, momentu honetan, euskera hori etxeetatik atara eta gizarte bizitzan sustatzea da. Hori bultzatzeko beharrean gabiltz eta ez daukat zalantzarikertaineko epean egoera nahiko hobetuko dana.

**Udaldia igaroten datozanek erdera hutsean egiten dabe berba. Ba ete dauka horrek bakiotarrek berba egiteko eran eraginik?**

Udan herrira 13.000 pertsona hurreratzen dirana kontutan hartu behar da, gehienak Bilbo eta haren inguruko herri erdalduetakoak. Beraz, ulergarria da udako hartuemonak, gehienbat, erderaz bideratzea. Horrek, jakina, eragina dauka kultur erreferentziak eskuratzeraoan. Edozelan be, azken urteotan aldaketak igarri dira, eta gero eta udatiar gehiagori

*EL CORREO* egunkariak aurtongo martiaren 30ean Urdaibairi buruzko gehigarrian agertutako alkarrizketea dakartsuegu bertan.

Bakioko gizarte bizitzan euskerearen erabilera eta eguneroko hartuemonak euskaldundu daitezcan, JOSEBA TERREROS, Udaleko Euskera Teknikaria dogu arduradun. Gazte horren esanetan, Bakion euskerea bizi-bizirik dago, nahiz eta erderearen eraginak kalte handia egin. Euskal hizkuntzeari buruz egin diran ikerketen arabera, Bakio oso leku egokia da euskerearen erabilpena handitzen ikusteko.

entzuten jako euskeraz, batez be, umeak tartean dagozanean.

**Udaletxean euskerarik erabilten da?**

Daborduko, euskerazko funtzionamendua imini da abian. Horrek esan gura dau barruko hainbat agiri euskera hutsean idazten dirala, barbarako, akta eta zinegotziei emoten jakezan informazinoren batzuk. Era berean, jendaurrean agertzen diran iragarki edo bestelako informazio idatziak be elebitan egin ohi dira, beti be, euskereari lehentasuna emonez. Azkenik, administratu alfabetatuei tramitazioak euskera hutsean emoten jakez, eurak horregaz bat etorri ezkeru.

**Badago Bakion euskereari buruzko ikerketaren bat eginda?**

Bai. Igaz SIADECO enpresa arduratu zan merkataritza arloko eta Bakioko kultura, astialdi eta kirol taldeetako hizkuntza egoera ikertzen. Datuak oso interesgarriak dira eta garbi adierazoten dabe erabilera oso altua ez izanda be, Bakiok aukera

ezin hobeak eskaintzen dauazana euskerearen agozko erabilpena handitzeko. Inaki Gamindek Bakioko berbakerari buruz idatzitako liburuan be, bertoko hizkerea ze aberats eta joria dan ikusiko da.

**Adinaren arabera, zeintzuk dira euskera gehien erabilten daben taldeak?**

40 urtetik gorakoek euskera gehiago egiten dabe adin horreetatik beherakoek baino. Hutsunerik nabariena 25etik 35era bitarteko adintaldean dago. Baina hori ez da Bakioko kontua bakarrik, izan be, pertsona horrek erderaz (sasoi haretan ez egoan beste irakaskuntza eredurik) ikasi behar izan dabe eta ganera une haretan euskerearen kulturea daborduko makaltzen hasia zan espainiar diktadurak urteetan bultzatutako hizkuntza zapalketea eta bazterketea zirala eta.


**«Zurrut eta purrut, batera ezin leitekez.»**



# ZEIN DA ZURETZAT ARIKETARIK ONENA UMORE ONA IZATEKO?

## Pilar Garcés de Los Fayos

Edozein kirol praktikatzea oso ondo dago. Ariketaren bidez endorfina askatzen dogu eta horrelan psikiko eta fisikoki hobeto sentitzen gara.



## Nekane Ugalde

Barre asko egin. Gauza askoren bidez euki ahal dot umore ona, esaterako, lagunakaz parrandan banao.



## Eztizen Angulo

Lagunakaz futboleant jokatzea gustatzen jat eta oso ondo pasatzen dot.

## Iñaki Rabanal

Ni beti nago umore onez. Baina onena zera da, zapatuetan lagunakaz futboleant jokatzen dodanean.




## Gorka Odriozola

Zinemara joatea eta pelikula barregarri bat ikustea gustatzen jat. Baina, umore ona eukiteko nik gauza asko egiten dodaz, futboleant jokatuz, mendira joan... Ganera, nire koadrilakoakaz afaria egiten dot astero.

## Bego Iturain

Kaletik noanean, besteen alkarrizketak entzuten dodaz. Horrelan herriko "kotilleo" guztiez enteretan naz. Badodaz lagunak, esaterako, Koldo Erauzkin, txisteak kontatuz eguna alaitzen deuskuen.



Haitz - Larraitz - Ziortza - Anartz

### ESKERRAK BIHOTZETIK!!

Jorge Busturia, Anartz Ormaza eta Kike Martínez argazkilariei eskerrik beroenak emon gura deutseguz, TXIRRITXOLA egiten, edo hobeto, jantzen horrenbeste lagundu deuskuelako.

# HeRRi bArriak

## Gazte Txartelaren inguruko VIII. kanpaina

Eusko Jaurlaritzak eta udal honek sinatutako hitzarmenari esker, bakiotar gazteok aukera ezin hobe doaz aurreko zezeilaren 22tik Gazte Txartela barria eskuratu ahal izateko. Europako 26 herrialdeetan eta estatuko autonomia erkidego guztietan homologatua izan dan txartel hau aurrezki kutxetan eskuratu ahal izango dabe 14 urtetik 25 urtera bitarteko gazte guztiak. Txartelak eskaintzen dauazan abantailak nahiko handitu dira azken gidan batutako 800 eskaintza barriei esker. Beraz, horren jakitun egon gura izanez gero, gida Kultur Etxean jaso ahal izango doazue.



## Ostalaritzako 13 profesionari barri

Igazko urriaren bigarren hamabostaldian ostalaritzako laguntzailea izateko hasitako ikastaroa hemendik gitxira amaituko da. egitarauan ezarritako 750 orduak bete aginean dagoz eta. Diziiplina askoko prestakuntza mota hau gehienbat 5 arloren inguruan bideratu da: sukaldaritzako oinarritzako prestakuntza, sutean laguntzeko zereginak bete ahal izateko; zerbitzari modura jana eta edana zerbitzatzea; tabernako barran jarduteko trebezia eskuratzea, tabernari bateri jagokozan zereginak betetzeko gaitasuna lortuz; hotel baten nondik-norakoak zeintzuk diran jakitea, berbarako bezeroei egin beharreko harrera, geletako zerbitzua...; enpresak kudeatzeko oinarritzako kontzeptuak, nor bere proiektuak bideratzeko gauza izan daiten. Oinarritzako prestakuntza honeri esker, daborduko ikasleentzat bik lortu dabe behar egiteko kontratua eta, ganera, ikastaroa amaituenera kontuan hartu beharreko hainbat eskaintza izan dira. Era berean, Longarai ostetetxearen egokitzapen obrei berehala ekingo jakela aurreikusita dago; izan be, uda hasikeran hoteleko enpresa jarduera bateri oratzeko asmoa dago oinezgira hau erabilia.

## Jakien erabiltzailea izateko agiria behar-beharrezkoa ostalaritzan

Ostalaritzan jakien erabiltzaile agiria egiaztatzeko beharizanaren inguruko proposamen bateri erantzunez, Bakioko Udalak erabagi eban hori lortzeko asmoa dauken interesatuei deialdia zabaltzea. Horretarako, oso kontuan hartu zan arlo turistikorako zein garrantzitsua dan Bakioko ostalaritza benetako profesionariez hornitzea. Halan bada, hiru eguneko ikastaro hau bideratu guran Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz hartuemonetan paratu ostean, maila 2 bereizi behar zirala jakinarazo euskuen: bata, jakiakaz zuzeneko lotura euki ez, baina ostalaritzako arloan, oilotegietan, merkataritzan, txosnetan... behar egiten dabenei zuzendutakoa; bestea, jakiak beren beregi erabilten dabenez zuzendutakoa (suteko laguntzaile eta buruei zein gozopintako edo pintxoetako espezialistek... zuzendutakoa). Azkenik, esan beharra dago ikastaroari harrera ezin hobe emon eta makina bat pertsonak hartu dauala parte.



## Nekazaritzaren inguruko ikastaroa

"Bakioko nekazaritza arloa bizibarritzeko prestakuntza ikastaro"aren saio teorikoak, zezeilaren 3an amaitu eta gero, saio praktikoei ekin deutse beste herri batzuetan izan diran esperientziak ezagutzeko. Ikastaroaren helburua azaltzea izan da zeintzuk diran tradiziozko baserriak euki daikezan alternatibak, bai eta, edozein jarduerari oratzeko zeintzuk diran emon beharreko urratsak be, kasu baterako, jarduera barria sortzearen inguruko azterketa eta ikerketa, bakoetak edo erakunde baten aholkulariei esker egin beharreko bideragarritasun plangintza eta abar. Beraz, une honetan hemen azalduetako jardueretarik bat edo nekazaritzako beste edozein aukeratu beharko litzateke; izan be, korporazioa prest egongo litzateke aukera hori egiten dabenei laguntzinoa emoteko, bai erakundeei aurkeztu beharreko dokumentazioei jagokenez, bai ideia behar lez hazurmamindukeran, bai horren inguruko bideragarritasun plangintza egingeran.



## Harrera ezin hobe sastarrak erreziklatzeko egitasmoari

Bakioko Udalak zabalduetako informazioaren bitartez, bakiotarren artean interes handia sortu da erabili eta botatzeko produktuak hobeto bereizi eta, horren ostean, erreziklatzeko. Aldundiari erreziklatu beharreko materiala banatzeko 200 poltsen ganean egindako eskaerari jagokonez, aitatu beharra dago eskari kopuruak aurreikuspen guztiak gaingiditu dauazala; izan be, lehenengo 3 asteetan guztira 105 pakete banandu dira.

## "P" eremua, jarduera ekonomikoak bultzatzeko gunea Artzalde auzoan

Une honetan indarrean diran arau subsidiarioek gune bi zehazten dabez industri jarduerak instalatu ahal izateko. Horretarik bat "P" hizkiaren bitartez identifikatuta dago Artzalde auzoan. Industrialdea, laguntza tailerrek edo beste jarduera ekonomiko batzuek kokatzeko esparruak prestatu guran, udalak "P" eremua martxan ipintea erabagi dau; horretarako, une honetan jendaurrean dagoan beharrezko plan partziala burutu eta oneritxia emon deutso urtarilaren 28ko osoko bilkuran. Ereku horrek 31.959 m<sup>2</sup>ko azalera hartuko dau, modu honetara banatua: 19.184 m<sup>2</sup> industri eremurako, 4.627 hutsarteetarako, 1.222 merkataritza zein gizarte ekipamendurako, 667 berdeguneetarako eta 5.012 errepede eta oinezkoen pasabideetarako. Industrialde honetan, bada, era guztietako jarduerak ipini ahal izango dira martxan.

## BAKIOKO 7. ARGAZKI LEHIAKETEA

Aurton be, zazpigarren urtez, Argazki Lehiaketea eratu deuskue herrian Bakioko Kultur Etxeak eta Turismo Bulegoak. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 6ra arte zabalik egongo da eta Turismo Bulegoan itzi beharko dira. Lehiaketan esku hartuteko bete beharrezko baldintzak, honezkerotan, jakitera emonda dagoz. Adin talde bitan bananduta egonda be, edozeinek hartu leike esku. Gaia "Bakioko jai eta ospakizunak" izango da. Argazkilari bakotzak bost argazki aurkeztu leikez. Adin talde bakotxeko saritu bi izango dira eta, ganera, sariak ez dira edozelangoak izango, gero! Argibide gehiagorako, jo eizu Turismo Bulegora eta bertan lehiaketan eskuartuteko baldintzen eskuorria eskatu. Zori ona izan daizula!



Aurtongo zezeilaren 19an ospatu zan ZUGATZ EGUNA gure herrian, Udalak eratuta. Egun hori Larrondoko askaldegian emoteko, urtero lez, hainbat eta hainbat ume, eskolako irakasle eta udaletxeko behargin hara joateko batu ziran, goizeko 9.30etan, udaletxe aurreko enparantzan.

Aro txarra egonda be, 125 zugatz landatu ebezan: haretzak, leizarrak, kereixondoak eta urkiak. Zugatzak landatu ez eze, zugatzon inguruan jakingarriak azaldu eutseezan umeei udaleko arduradunek. Umeei Bakioko inguruak eta ingurugiroa jagoteko makina bat gauza poz-pezik entzun eben egun hatan.

## ZUGATZ EGUNA 1999



## ADMINISTRATU EUSKALDUNEN ERROLDEA

Izenburuan agertzen dan lez, udaleko euskera zerbitzuak aztertzen dihardu administratu euskaldunen erroldea martxan ipinteko asmoa. Izan be, administrazioa euskalduntzeko plagintzak onartzeagaz batera, administratuei tramiteak euskera hutsean jasoteko aukerea be emoten jake.

Hori egiteko arrazoiak bi izaten dira: batetik, tramitazioak, agiriak eta



era guztietako hartuemonak euskera hutsean gura daben herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, eta, bestetik, administrazioaren jarduna bizkorrago euskalduntzeko

oinarriak ipintea. Ganera, hauxe da udal beharginei alperreko beharra emoten deuten elebitasuna saihesteko modu bakarra.

Horrenbestez, apirilaren amaieran martxan ipiniko da hartuemonak euskalduntzeko egitasmo barri hau. Horretarako, aprobetxatuko da herriko alkarteei Bakioko gizarte bizitzan euskerearen erabilera areagotzeko jendaurrean aurkeztu beharreko ekitaldia.


## UDAL HAUTESKUNDEAK LASTER

Aurtongo bagilaren 13an izango doguz Udal Hauteskundeak barrian. Datozan lau urteotako udal ordezkariak (zinegotziak eta alkatea) aukeratu ahal izango doguz, bada. Aurrekoetan lez, aurton be EAJ, EA eta EH (HB) alderdi euskaldunek euron hautagaiak aurkeztuko deuskuez. Guzurtoki politikoetan entzuten diran zurrumurruak dirala-eta, baina, baleiteke aurton alderdi espainoleren batek, lehenengoz gure herrian, kanpotik ekarritako hautagaiak aurkeztea. Ziur gagoz, oster, Bakioko herritarrek bertoko alderdi euskaldunen alde agertuko dirana.

## BERMEO ETA BAKIO BIZKAIBUSek BATUTA

BIZKAIBUSek Bakio eta Bermeo alkar lotuteko zerbitzua eratu dau aurtongo martitik aurrerantza. Zerbitzu honek herri bakotxetik lau urteker, eskainiko deuskuz. Hau da:

Lehenengo zerbitzuak Bermeotik goizeko 7etan urtengo dau Bakiorantza. Ganerakoek, barriz, goizeko 10.30etan eta arrastiko 14.30etan eta 18.30etan.



Bakiotik Bermeorantza, baina, orduotan urtengo dau autobusak:

7.30etan, 11.30etan, 15.30etan eta 19.30etan.

Asteburuetan, oraingoz zerbitzurik egon ez arren, udan eukiko ei dogu, goizeko 7etako eta 7.30etako zerbitzuak izan ezean.

Txantelak 200 pesetan astegunetan eta 210 pesetan asteburuko egunetan erosiko dira. Oster, *Kredibus* dalakoa daukenentzako txantelak 150 pta balioko dau.

*Hau zeure iragarkirako lekua izango da.*

# Baserriak baktotxa bere izenagaz


Bakioko 189 baserriek izena, baktotxak berarena, agirian eukiko dabe aurrerantzean. Baserriaren izena ez eze, haren ganeko bestelango zehaztasunak be agertuko dauazan euskeraz idatzitako idazkun bana, etxeko hormeari dautsola, iminiko jake. Horrez ganera, bidarteetan zein jagoken bideetan be noranzko taketak iminiko dira, argibide eran.

Udalaren ekimen hori ondo baino hobeto hartu dabe herriko giro euskalzaleek. Horretaz guztiorretaz herriko hizkuntza eta historia altxorren zati garrantzitsua birreskuratu eta jagon gura dabe-eta,



## Baserriaren museoa

Gizaldi eta urte askotako herriko baserriarren ekanduak eta tradizioa etorkizunerako batu eta erakusteko dalako BASERRIAREN MUSEOA egitekotan dabil Udala. Horretarako, azterketa teknikoa aginduko dau Udalak, horrelango museo indarrean iminteko beharrezkoak diran ahalmenak eta baldintzak Bakiok beteten dauazan ala ez jakiteko. Hasikera baten, baserriak arkitekturearen aldetik aztertuko dira, museoaren etxea aurkitutako asmotan edo. Gero, bertako jaubeek proiektuagaz bat etorri ezkeron, museo bertan kokatzeko. Museoak, jakina, eskura egon beharko leuke, bertara era errezean joan ahal izateko.



## Erakusketea

Zezeilaren 2tik 16ra, Kultur Etxeko Erakusketa-gelan, argazki erakusketea euki geñduan. Egileek, Jose Ignacio Lobo eta Raul Guerra, Euskal Herriko hainbat txoko erakutsi euskuezan zuri-baltzez egindako argazkietan.

«Zer ikusi, ha ikasi.»

# KULTUR ETXEKO BARRIAK

## Apirilaren

**3an:** "Napoleon, txakurtxu abenturazalea" filmea  
18:00etan, bideo-gelan.

**6an:** 19:00etan, Chiapas-eri buruzko diaporama saioa,  
bideo-gelan.

**6, 7 eta 8an:** umeentzako joko tailerrak, 17:00etatik  
19:30etara. 500 pta.

**16an:** Koldo Amestoyren "Makilargi" ipuinaldia,  
19:30etan (13 urtetik gorakoentzat).

Liburutegian, **6tik 16ra arte**, Mark Twaineri buruzko  
erakusketa berezia.



# TXONTXONGILO SAIOA BAKION



## **ARATUSTEAK. Zezeilaren 12an:**

Mozorroa hartu eta zatoz gure jaira !!



**Arratsaldeko 3:00etan:** Eskolako umeen antzezlanak oktogonoan.

**4:00etan:** Txokolatada oktogonoan.

**+5:30etan:** BIHAR txontxongilo taldeak "Baleak salba ditzagun" eskainiko deusku.

(Ez ahaztu datorren zezeilaren 19an bertso afaria be egongo dana.)

Antolatzaileak: Bakioko Udala + Eskolako Guraso Elkarte

Aratosteetan, zezeilaren 12an, hurrengo egitaradun jaia ospatu eben herriko eskolan:

**15:00etan**, umeek prestatutako antzezlanak.


**16:00etan**, txokolatada eta erromeri txikia.

**17:30etan**, BIHAR taldeak "Baleak salba ditzagun" saioa eskaini eban oktogonoan.

## TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 1999ko apiriletik aurrera egongo dira indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkean, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (100 x 65)	10.000	7.500	5.000
16rena (65 x 50)	7.500	5.000	3.750
32rena (50 x 35)	5.000	3.750	2.500



## **BAKIOKO EUSKEREAREN AZENTUA**

Bakioko euskerearen azentua aztertu dauan ikerketa beharra egin eta argitaratu dau Iñaki Gamindek, FONTES LINGVAE VASCONUM aldizkariaren 1999ko urtarrila-apirila sasoiari jagokon 80. zenbakian argitaratu be. Aitatutako aldizkaria euskerearen ganeko azterlanak kaleratuteko lehio zabala da eta nazinoarteko hizkuntzalarien artean izen haundiko argitalpena dogu. Nafarroako Gobernuaren babesean argitaratu eta munduan zehar zabalduten dabe. Oraingo honetan, Bakioko euskerearen azentuerearen ezaugarriak nagusienak aurkeztu deuskuz Iñakik. Bakioko euskerea iparraldeko bizkaiearearen barruan doinu-azentu sistemak egiten diran eremuan kokatuta dago, hau da, Getxo-Gernika izendatu izan dan aldakian. Herriko berbakeran gehiago sakondu gura dabenezako behartxu honen ale pare bat Kultur Etxeko liburutegian eskueran dauke.

### **BAKIO BERBARIK BERBA**



Iñaki Gaminde

## **BAKIOKO EUSKAREA INTERNETen**

Iñaki Gaminderen eskutik orain badaukagu erea Bakioko Euskerea Interneten bidez ikertu eta entzuteko. Daborduko, AHOWEB gunean 300 megako behar mardul hori, berak eta lagun batzuk iminita, egon badago. Bakioko agozko bizkaiearearen corpus zabala, hatan be. Laster argitaratuko da CD-ROM formatoan be. Iñakiren esanetan, “*euskera barririk* ikasi ez daben euskaldunek egiten daben euskera *pre-teknologiko* hori barik, nekez eukiko dogu etorkizunean *euskera teknologikorik*. Agozko benetako euskerea entzuten jakin beharko dogu lehenengo ta behin. Betiko euskaldunei entzun behar deutsegu, ondo egiten ikasi daigun.”

Amen dozuz, bada, goian aitatutakoen Interneteko zuzenbideak, bertan ibilteko asmorik bazendu, hara jotea baino ez zeunke:

#### **Ahoweb**

[http://bips.bi.ehu.es/ahoweb/eu\\_index.htm](http://bips.bi.ehu.es/ahoweb/eu_index.htm)

#### **Bakioko euskerea**

<http://bips.bi.ehu.es/bakio>

## **“BAKIO BERBARIK BERBA” LIBURUA**

Azkenean, Iñaki Gaminde hizkuntzalari eta irakasleak Bakioko euskerearen ganean egindako liburua aurtongo udarako salgai egongo da. Argitalpena Bakioko Udala, Labayru Ikastegia eta BBKren arteko alkarlanari esker egingo da. Ha erosteko salneurria: 1.500 pta.

### **SANTA AGEDA**

Santa Ageda, Ageda,  
Bihar da Santa Ageda,  
bihar da Santa Ageda eta  
gaur haren bezpera gaua. (birritan)

Santa Ageda bezpera dogu  
Euskal Herriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua doguna. (birritan)

Aintza ta aintza  
Agate Deunari.

EUP!!

### **SANTA AGEDA**

Santa Ageda, Ageda,  
gure martiri maitea.  
Etxe honeri emon eiozuz  
zoriona ta bakea.

Mutil gazteak gara gu,  
bakiotarrak ganera.  
Txiro-gaixoak poztuteko da  
gaurko gure eskaria.

Mendi tontorr(e)an edurra,  
errekaldean leizarra.  
Etxe honetako nagusi jaunak  
urregorritz dau bizarra.

Eskerrik asko jendea,  
bizi zaitze bakean.  
Gero zeruan topa gaitetzan  
Agedaregaz batera.

EUP!!

# BERTSO AFARIA

**Joan dan zezeilaren 19an Txoberne tabernan izan genduan bertso afarian hainbat bertso eta kopla abestu genduzan giro alai eta aproposean. Horren ezaugarri hor daukazuez orduko argazki eta bertso batzuk.**



Bertsorik gabe ez da asetzen bertso zalearen harrik, hamaikak eta berrogeita hamabost ez dago esan beharrik. Nabari dago hamaikakoak gaurkoan ba du indarrrik jakin nahi nuke aski al diran hamaika bertso bakarrik.

(Lizaso)

Afari eske hasiak gera geure petxua puztuta, ia goseak etorri gero eta hori ezin ezkuta. Baina laguna lasaitu zaitte berandutzerik ez du ta, gaur joango gera tripa beteta eta burua hustuta.

(Mendiluze)

**Getariako (Mendiluze) eta Bakioko (Lizaso) txakolin egile bi alkarregaz berbetan:**



Zuk Bakio aldean dabilkizun lana onena hura dela batzuen esana. Hori bai eskatzeko daukazu afana baina zerbaitegatik daukagu guk fama.

(Mendiluze)

Arrotasuna dezu zuk ezin gordea guk humildadetikan jokatu ordea. Getaritik Bakiora ba dago aldea zuena ona degu gurea hobea.

(Lizaso)

Ipini nahi zenduke zu gure parian ta sartu behar dezu orain komerian. Txakolinik onena dago Getarian hemendik eramango zenuten agian.


(Mendiluze)

Txakolina egiten makina bat urte gainera ba daukagu nahikoa bertute. Txuri, gorri ta beltza aukera dezente zuek txuria bakarrik egiten dezute.

(Lizaso)




*Berton zure iragarkia argitaratu  
ahal izango dozu.*



# Korrika 11 badator, badator!!

**KORRIKA etorri zan, bada,  
Larrauritik Bermeorantza,  
arin-aringa, arineketan, lasterka,  
karradاران, zarra-parra  
etorri be.**



**Bakioko umeak KORRIKA TXIKIAN.**




**AEK erakundeak  
Bakion eratutako  
KORRIKAren  
aldeko afaria.**







**Bakioko Udaleko alkatea eta alkateordea.**



**Afari osteko XILIPURDI taldearen emonaldia.**



**Herriak goizaldeko 3retan KORRIKari arineketan eusten.**

# ITSASOKO HAREA DALA TA EZ DALA

Getxoko Arrigunaga haretzea egoera txar-tzarrean dago. Bizkaiko Foru Aldundiak haretza hori birreskuratutea erabagi eban. Horretarako egokia dan harea bertara eroatea eta bertan zabalduetea izan zan Aldundikoek aukeratutako konponbidea. Zenbat eta 210.000 m<sup>3</sup> hare. Hare kopuru handi hori nondik atarateko ikerketak egiten ibili ziran. Halan bada, harearen kalitatea dala, ingurugiroan kalterik txikiena egiteko dala, Bakio inguruau aukeratu eben hare kopuru handi hori atarateko.

Bakio aurreko itsas hondoan 2 milioi m<sup>3</sup> hare ei dagoz. Aldundiak horreei zati bat kendutea eta Arrigunagan zabalduetea erabagi eban. Horretarako, lehenengo ta behin ingurugiroan zelango kalteak sortu leitekezan, haredun hondoaren zehaztasunak eta beraren ganeko aholku teknikoak jakiteko AZTI institutua kontratatu eben. Behin ingurugiro eta itsasoari buruzko argibide guztiak eskuan ebezala, SENER enpreseari emon eutsoen harea atara eta Arrigunagan zabalduetea proiektu tekniko diseinatuteko beharra. Beharra bera egiteko kontratua, ostera, CONSTRUCCIONES MOYUA SA eta OBRAS Y DRAGADOS enpresek sortu eben AET-ari emon eutsoen.

Arteragoko asteotan Bakioko AREAGA haretzearen aurreko uretan ikusi izan dogun itsasontzi gorria azkenik aitatutako enpresa talde horretakoa da. Itsasontzi hori itsas hondoan arakatzen eta handik harea ataraten ibili da. Honezkero, 20.000 m<sup>3</sup> hare atara ei dabez. AZTI institutuko en berbetan, ez litzake 25 m baino gitxiagoko itsas sakonerako harerik atara behar.

Itsasontzi gorria Bakioko uretan agiri ta bertan, herritar eta udatiar asko hasarratu, sutu eta aurka agertu dira. Surfistek manifestazino bi eratuaz ganera, Bakioko Udalak Aldundia, AZTI eta SENER erakundeei jendaurreko batzar bitara deitu deutse. Erakunde horreetako teknikoek arazorik ez dala egongo behin eta barriz esan arren, batzar horreetan herritarren hasarre bizia eta susmo txarrak agirian be agirian lotu ziran. Antza, teknikoek markatutako lekutik kanpo, baita 25m baino gitxiagoko sakoneran be harea ataraten ibili dira. Halan bada, ingurugiroari egin leitekion kaltea handia izango dalakoan zabal-zabal dago herritarren artean. Azkenengo batzarrean, martiaren 25ean, Udalak eta han batutako herritarrek, ago batez, itsas hondotik harea atarateko beharrak bertan behera izteko eskatu eben. Ara gehiago, Arartekoagaina laguntza eske jo dabe herritar batzuk.



Inongo aldetik amarrurik ez dala egongo jakiteko, hare-atarate lekuan diralako kutxa baltzak sartuko dauz AZTI institutuak itsaspean. Aldundiak, beraren aldetik, itsas biosferearen ganeko beste ikerketa bat egiteko agindu dau. Horregaz batera, herritarrek aldiro-aldiro joan ahal izango dabe itsasontzira, han egiten diran beharrak legezkoak diran ala ez euren begiez ikusteko.



## AGATE DEUNA

Aintzaldu daigun Agate Deuna bihar da ba Deun Agate. Etxe honetan zorion hutsa betiko euk(ik)oa al dabe.

Deun Agatena batzeko gatoz aurtan be igazko berbera. Igaz lez hartu gagizuz eta zabaldu zeuen sakelak.

Alkate jaunak agindu deusku: bakean ibil gaitazan. Bakean gabilz, bakean eta Jaungoikoaren legean.

Eskerrik asko jendea, bizi zaitzeze bakean. Gero zeruan topa gaitazan Agedaregaz batera.

EUP!!

## SANTA AGEDA

Santa Ageda, Ageda, gure martiri maitea. Etxe honeri emon eiozuz zoriona ta bakea.

Santa Ageda, Ageda, eskatzen deutsut grazia. Zeure bizitza abestuteko erruki dadin jendea.


Zenbat sufritu zenduan heriotz itzalgarrian, zeure gorputza kristal ganean narraztatu ebenean.

Heriotz eder-ederra euki zenduan Ageda. Zeruko atek zabaldukan hartuko zendu(a)n bakea.



Eskerrik asko jendea, bizi zaitzeze bakean. Gero zeruan topa gaitazan Agedaregaz batera.

EUP!!

«Umearen zentzuna, etxean entzuna.»



# SAN JOSE EGUNA Martiak 19



# ARANA GOIRItar SABINek

## egindako eskaerea

Denbora askotxu igaro da pasa dan mendetik hona eta, beraz, edozein bidek aldaketa frango izan daitezke, gaur egun Bakioko bide nagusi dogun bideak lez. Zubiaur eta San Pelaio auzoak batzen dauazan bidea Sabino Aranak orain dala mende bete egindako eskaerearen emoitzea dogu. 1899.eko zementariaren 9an Sabino Aranak eskaera bat aurkeztu eban Bizkaiko Foru Aldundian Bermeoko Zubiaur eta San Pelaio auzoak lotzeko asmoagaz.

Sabino Arana 1865. urtean jaio zan Abandon. Hamazazpi urte ebazala, beraren anaia zan Luisen eskutik euskal abertzaletasunaren pentsamenduak jo eban eta hausnarketa sakonaren ostean, bizitza osoa Euskal Aberria birrerakitzen emotea erabagi eban. Euskerea ikastea izan zan haren lehenengo lana. Euskal Herria edo EUZKADI, berak Euskal Herriari emondako izena. Euskal Herriaren eta euskerearen alde lan mardoza eginda, beraren eritxi politikoakaitik hainbat bider espexeratua izan zan. Gero, Sukarrietan hil zan 1903. urtean.

1898. urtean Sabino Arana, Euzko Alderdi Jeltzalea ordurako berak eratuta,



alderdi horren ordezkari lez Bizkaiko Foru Aldundian sartu zan eta bertan euskal abertzaletasunaren aurka egozan guztien aurka (sasoi hatan alderdi guztiak) egin behar izan eban.

Lan handia egin eban Aranak Foru Aldundian, gizarteko beste arlo askotan lez, era guztietako gaiak jorratuz eta eskabideak eginez, esaterako: "Hurrengoko urteetan San Inazio jaia ospatzeko eskaerea", "Koplak saltzen dabezanei eta musika tresnak jotzen dabezanei gaineko zergea ezartea", "Bideak eraikitzeke proposamena" eta abar, eta abar.

1919. urte ingururako Zubiaurraldetik Olaskoetxeginoko (Olaskoagatarren etxea) bidea baegoan eginda. Kontratastea Landaluze izeneko gizon bat izan zan. Pare bat urte beluago hasi ziran bidearen bigarren zatia egiten, hau da, Olaskoetxe eta Urizarreta batuko ebazana, Eduardo Garai dalako kontratastearen eskutik, hain zuzen be.

Ez zan lan erreza izan, sasoi haretako eskuarte eta bitarteko urriak kontutan hartuta. Baina apurka-apurka bidea egiten joan ziran. Portu aldean harriak ataraten ebezan, astoz eroanda, bidea eraikitzeke. Karea *KARABIA* aldetik ataraten zan, bai bidea bai Olaskoetxeke zubia egiteke be. Sasoi hatan, laneskurik merkeena Ondarreko zubi aldean lan egiten eben karabineroena izaten zan, hareek diru gitxiren ordezkari lan egiten eben-eta. Urte batzuk geroago, bidea Matxitxakogino luzatu eben.

Belaunaldirik belaunaldi bidea eraikitzen joan ziran. Sabino Aranak egindako eskaera haretatik gaur egun ezagutzen dogun bidea lortu arte. Eta aor daukagu edozein momentutan Zubiaurraldetik San Pelaioa tipi-tapa ibilteke bidea.

*Ainara MADARIAGA*




## Bakioko bide nagusiaren ikuspegi bi



**Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK  
lekutxu hau eskainiko deutsu.**

# ZAHARRAK BARRI



Arteragoko ataletan Bakioko leku jakinak azaldu izan doguz konparaketa eran: Bitzgane, Bella Vista, Estandeko errepeidea..., baina oraingo honetan Bakioko ikuspegi orokorra ikusi daitezue bertoko argazkietan. Argi ikusten denez, nahikoa eraldatu egin jaku azkenengo urteotan gure Bakio. Nahiz eta beti-betiko eregikuntzak egon, goiko eleizea, Quinta Torre, Etxepinto (eskola zaharra)...., hainbat etxe barri eregi dira eta baita beste batzuk desagertu be. Nabari-nabarien ikusten doguna, Mimenarte, Mimenondo eta Ibarreta etxeak dagozan inguruko orduko hutsunea da. Lehen solo zabalak eta errepeide artez eta bakarra baino ez ziranei, herriko alderdi honetan, bizitasun apur bat emoten deuse gaur eguneko etxeek. Aitatu be, herriko alderdi honetatik ikusita, haretza inguruko etheen presentzia ez dala hain nabaria, argazki zaharrean erakusten deusegunez. Argazkia egin zan sasoiaren udatiarren etorkerea hasita egoan-eta. Orduan familia gitxi batzuren nasai-tokia zan inguru ha. Nork esango eban, bada, gure Bakio udea emoteko Bizkaiko tokirik garrantzitsuenetariko bihurtuko zanik? Halan be, ez dau guztiz galdu daukan berezko nasaitasun giroa, neguan batez be.

**Anartz ORMAZA**

## SANTA AGEDA

Bedeinkatua izan dadila  
etxe honetako jendea.  
Pobre ta humilde dabilan(ar)entzat  
badozu borondatea.

Oles, oles ateetan.  
Nor dabil ordu honetan?  
Bakioko jende gaztea  
bazterrak inkomodetan.

Hortxe goien otea,  
ahuntzak jan dau botea.  
Urregoriz plagaurik dago  
Maritxu zure dotea.

Emongo ba(do)zu, emoizu.  
Bestela, ezetz esaizu.  
Atean hotzak hiltzen egoteko  
amak ez gaitu bialdu.

Atso mondrongo-mondrongo.  
Hik ez dona asko emongo.  
Hik emoten donan limosneagaz  
ez jonagu asko edango.

# 1.- Non dago idazkun hori?

## 2.- Zer da han esaten dana?



Erantzunak badakizuz, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea bagilaren 18an amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzunak igarriko dabezanen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

### Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Arteragokoaren erantzun zuzenak:

1.- «Zubiaur aldean»

2.- «Tabernazarra»

Irabazlea: **Lainoa Bilbao**

Amen dozuez **Lainoa Bilbao** eta bere laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.



# TXOBERNE

Benta Alde, 148  
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatuteko  
leku aproposa  
Bakioko txakolina, sagardaoa  
eta jateko giro ezin hobiauan

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81

# ABESBATZAGAZ AURREZ AURRE

**Abesbatzaren batzordeko dan Josu AGIRREgaz izan gara berbetan. Bakioko Abesbatzak urteotan egindako ibilbidea, labor labor, ekarri gura izan deutsuegu hemengo honetan.**

**TX: Noz jaio zan abesbatza?**

**JA:** 1984ko udabarrian, orain dala hamabost urte. Jendaurreko lehenengo ekitaldia, baina, urte haretako maiatzaren 15ean izan zan. Gaizka San Pedro bermeotarra (G.B.) izan genduan lehenengo zuzendaria eta bultzatzaile nagusia. Berak maisukiro asmatu eban gure agotsak landu eta bateratuten. Zeregin horretan jardun eban ba, ordainetan inoz ezer eskatu barik, behargin zehatz jator nekagatxa, osasunez makaldu zan arte. Gaizka hil zanetik hona Begoña Abio dogu zuzendari.

**TX: Esaiskuzu Josu, labor, zer dan gaur egun abesbatza.**

**JA:** Gaur egun 38 bat agots alkartuten gara, gizonetako eta andrazko, eta Bizkaiko Abesbatzen Alkarteko kideak gara. Hori dala eta, 1995ean Bakion bertan eratu zan



XII. Bizkaiko Egun Korala. Entsaioak bariku eta zapatuetan egiten doguz. Astean beste baten be egin gura geunke, baina, oraingoan, beharra, ikasketak, eta... diralada, ezinezkoa dogu. Abesbatzak ia urtero urtero hartuten dau esku Begoñako Abesbatzen Astean, baita Bizkaiko Abesbatzen Alkarteko eratuako Udabarriko Kontzertuetan be. Beste aldetik, Bakioko Musika Astea eratu lagunduten deutsuegu Bakioko Udalarari eta Foru Aldundiko Kultura Sailekoei. Bakioko Musika Asteak -esan daigun, bide batez- kalitate eta entzute

handiko nazinoarteko jaialdia izatea lortu dau.

**TX: Ederto. Aitatu eiskuzuz, orain, zuok egindakoen artean diranik eta jakingarrienak.**

**JA:** Taldeak lortutako mailarik gorena 1997ko Bakioko Musika Astearen X. urteurrenerako (1986-1996) Anton Larrauriren "Bestelako Gudariak" lanaren estreinaldia egin genduan izan zan, Mungiaiko Abesbatza eta Haize eta Perkusino Orkestra bat lagun genduzala. Estreinaldi harek prentsan eta telebistan be lekuri izan eban. Azkenean, emonaldi bakarria egin genduan, CDa zuzenean grabatuz. Gatxa izango dan arren be, holakoak gehiagotan egiteko itxaropenik ez dogu galdu.

**TX: Eta egitekoen ganean zer esan zeinkigu, Josu?**

**JA:** Aurton be gogor gabiltz behar egiten eta herriari ezusteko polita eskainiko deutsogulakoan gagoz. Ezustekoa izatea gura dogun arren, zozertxu aurreratu dogu: oraingoan be Mungiaiko Abesbatza la-

gun izango dogu, eta orkestra, barriz, soinu handiena izango da.

**TX: Eta zer ekarriko deutsue etorkizunak?**

**JA:** Ezin dogu, azkenik, aitatu barik itzi abesbatz txikiari emon gura deutsogun bultzadea. Umeen ilusinoari bizirik eusteko jantzi barriak erosi gura deutsuegu, baita ekitaldiak eratu be. Zalantza txintik be ez dogu: gure harrobia abesbatz txikia da. Etorkizuna, bada, eurona da.

**TX: Eskerrik asko, Josu.**

**TXIRRITXOLA**

## Flashak!!

### ALAITASUNA Pilota Taldea

URKITZA ikastetxeko 3-4 urteko ikasleak eskolatik kanpoko zereginetan ibili dabilz Alaitasuna Pelota Taldeak lagunduta. Psikomotritate arloko gai batzuk lantzen dihardue. Adinean hurrengoei, umetxuak (benjaminak) eta ume gazteak (alebin-infantilak), aurrerakuntza nabariak igarten jakez. Beste alde batetik, Alaitasunako arduradunak euren burua errezikletako asmatan dabilz, FORMAKUNTZA ZABALEKO PROGRAMA ikastaroaren bidez, hain zuzen be.



### ESKOLAKO GURASOEN ALKARTEA

Informatika ikastaroa abian da daborduko eskolan, gurasoen alkarreak eratu, hatan be. Jo ta ke pozarren ei dabilz gurasoak informatika arloari ekiten.

Beste alde batetik, umeen arteko pelota txapelketea aurrera doa. Honezkerok, bigarren txandan dagoz eta ederto baten konpontzen ei dira. Hamabosterik behin, zapatuetan, arratsaldeko 4.30etan izaten dira pelota partidukoak.



### BAKIO SURF TALDEA

Itsas Mugarte Sailak hareatzako hondarra ataratzeko egitasmoa dala eta, Bakioko Surf Taldeak hainbat kexa zabaldu dauz jendaurrean ipinitako ohar baten bitartez. Euren esanetan, proiektu honek ingurugiroari kalte egiteaz ganera, ez da ulergarria zelan bideratu daiteken horrelako egitasmo bat, Gaztegunetako ingurune guztia biotopo izendatu ostean.



### BAKIO FUTBOL TALDEA

Igaz beheragoko mailara jaitsi ostean, une honetan futbol taldea egoera erosoan dagoala esan daiteke. Berrogeita bi puntu daukaz, sailkapenaren bosgarren postuan dago eta barri hau egin danean, jokatutako azken partidua bardindu eban Basauriko taldearen kontra.



### GAUEKA

Urtean-urtean egiten daben lez, aurton be Gaueka taldeak antolatu dauz San Jose egunean eta ostean egiten diran idi-probak. Jende asko bertaratu da probak ikusten eta antolatzaileek ontzat emon dabe Bakioko Udalak gonbidapenen bitartez jendea probetara parajetzeko egindako ahalegina.

**La Voz de ROJAS**  
 ANTE UN CENTENAR DE REFERENTES BARRIALES  
**Gustavo Vignali ratificó anoche su candidatura y lanzó la de Graciela Abril**

**Homenaje a "Serfin" e "Itxas Alde"**

**Continuaba ayer la entrega de guardapolvos y zapatillas**

**Postergaron la interna del PJ en la provincia**

**Aprobaron el Presupuesto y la Ordenanza N° 1**

**Aplicarán mañana un jardín de infantes en barrio Las Menalunas**

**Dijo que quiere ser "heredero" con un gobierno afín en la provincia y en la nación, y que "Graciela me acompañará desde el Concejo"**

**El municipio ofrece un voto de honor, en el que también se otorgará el botín apropiado del festival internacional de teatro. Mañana Sumaj**

**El señor Silverio Morguel - Asamblea: todo aprobado - Reeligieron a Boveri y Rubió**

**Radicales por el Cambio eligen hoy precandidatos en asamblea**

**Torrens: "La reconstrucción es la prueba más importante"**

**Vignali recibió a Maikan, Serfin e Itxas Alde**

# ITSAS-ALDE Argentinan

Gure aurtengo abentura zezeilaren 20an hasi zan, Argentinarako hegazkina hartu genduean. Nahiz eta bidaia luzea izan, ilusioz beteta egin genduan eta holantxe heldu ginan Rojas herrira, bertan Maikan Sumaj-eko lagunak gure begira-egozala, eta baita beste lagun barri batzuk be: Mexikoko dantza talde bateko kideak.

Baina ez dogu ahaztu behar gure bidaiaren helburua euskal folklorea zabaltzea zana, eta horrelan egin genduan lehenengo egunetik. Rojasen ibilteaz gain, inguruko herrietako jaialdietan be dantzatu genduan: Colon, San Isidro, Arrecifes,... Aitatutako azken herrian, bertako Euskal Etxean egon ginan berbetan, eta hainbat kontu alkar trukatu genduan. Arrecifsen be, San Pelaio aldeko Erkorekatar andra bat ezagutzeko aukera izan genduan. Dantza egiteaz gain, bertako kultura eta ohiturak ezagutu

**El Diario**  
 Fundado el 22 de Julio  
 Precio de venta \$ 5.-  
 Edición de 20 páginas

**Integración de las internas del PJ**

**Cooperativa de Carabelas: Tendrá nuevo gerente**

**Radicales por el Cambio eligen hoy precandidatos en asamblea**

**Torrens: "La reconstrucción es la prueba más importante"**

**Vignali recibió a Maikan, Serfin e Itxas Alde**



Buenos Aires



Luján



San Isidro



Rojas

genduzan, adibidez, han baztertuta dagoan Mapuche indiarrena.

Bueltarako hegazkina hartu aurretik, Buenos Airesen igaro genduan azkenengo eguna.

Gixajoak gu, hamar bat egun berrogei gradutan bertan egon eta bertan euria eta hotza aurkitu behar!

**Idoia MARKAIDA**






Buenos Aires



Arrecifes



Río de la Plata



Buenos Aires



Buenos Aires



Rojas

*Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun,  
TXIRRITXOLAK lekutxu hau eskainiko deutsu.*

# BAKIOKO EUSKEREAA-V

**Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !**

**Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,**

- zelan idatzi behar dan: “saldua, galdua”
- Bakion zelan esaten dan: “(saldue, galdue)”

Platon lako inoizko filosoforik handienak Greziako antxinatekoak izan ei dira, klasikoak, hatan be. Gure Euskal Herriak, ostera, ez dau hareelango filosofo ospetsurik inoiz emon. Gure Herriak, baina, filosofia berezko besteko sakon-sakona sortu dau euskerearen bidez. Berau esakeretan edo errefracuetan ugari be ugaria da eta. Halan da ze, guztiz filosofikoa. Euskerea hizkuntza filosofikoa dalako. Errefracuetan antxinako filosofia edo kultura zuhur-zaharra gorde dogu. Hizkuntzearen aldetik, arkaismoz beteta dagoz errefracuok. Horrek guztiorrek, bada, Herri jantzi egiten gaitu.

Filosofia herrikoi horretaz beteta dago Bakioko euskerea. Amen, osterantzean, BAZTERRETXE baserrian batu dogun errefracu mardo. Ziur gagoz etxe askotan ezagunak dirana. Ziur gagoz be, asko be asko batuteko dagozana oraindikarren.

**Agindua bat, emona bi, aginduagaz kontentu/konforme izan hadi.**  
(aginxue bat, emona bi, aginxuegas kontentu/konporme ixen adi)

**Ahaleginak, mila modutara.**  
(alegiñek, mille modutara)

**Alabea ezkondu eta gero, senarra etxera.**  
(alabie eskondu te gero, senarra etzera)

**Balego ta balitz, alkarren atzean dabilz.**  
(balego ta balitz, alkarren atzien dabis)


**Dagoanean bonbon, ez dagoanean egon.**  
(dauenien bonbon, estauenien eon)

**Errementariaren etxean, zotza burduntzi.**  
(errementaridxen etzien, sotza burduntzi)

**Etxean otso, auzoan uso.**  
(etzien otzo, eusoan uso)

**Gizon guztiak burua baltz, zein dan hobea igarten gatx.**  
(gison gustidxek burue baltz, sein dxen obie igerten gatx)

**Goiz gorri, ilundi iturri.**  
(gois gorri, illundi itxurri)



**Hatzamarra emon eta besoa hartu.**

(*atzamarra emon da besoa artu*)

**Igaz igazkoa eta aurten aurtengoa, nekez ezkonduko da ganorabakoa.**

(*iges igeskoa da eurten eurtengoa, nekes eskonduko da ganorabakoa*)

**Ilundi gorri, goiz aterri.**

(*illundi gorri, gois aterri*)

**Iturrira biaje asko egin ezkeru, kantarua eperditik apurtuten da.**

(*itxurrire bije asko ein eskero, kantarue eperditxik apurtuten da*)

**Jaungoikoak mokorik ez daukanari emoten deutso painueloa.**

(*jaungoikoak mokorik estekonari emoten'tzo pañuelue*)

**Kanpo ederra, etxean gerra.**

(*kanpo ederra, etzien gerra*)

**Kontuak kontu, senarra boltsero.**

(*kontuak kontu, senarra boltzeru*)

**Lapurra, lapurren bildur.**

(*lapurre, lapurren bildur*)

**Lehenengo asunak eta gero lazunak.**

(*lelango asunek da gero lasunek*)

**Lurra bigunago, harra barrurago.**

(*lurre bigunau, arra barrurau*)

**Ondo eginaren pagua, ate ondoan palua.**

(*ondo egiñan pague, ate ondoan palue*)

**Pazko euritsu, urte opiltzu/ogitsu.**

(*pasko euritsu, urte opiltzu/ogitsu*)

**Saldua, galdua.**

(*saldue, galdue*)

**San Andres, txarria askan trabes.**

(*san andres, txarrixte askan trabes*)

**Sustantzirik ez dagoan etxean, goizekoa arrastian.**

(*sustantzirik estauen etzien, goizekoa arrastidxen*)

**Txakurrak, han be oinutsik.**

(*txakurrek, an bere oñutzik*)

**Umeak zer ikusi, ha ikasi.**



(*umiek zer ikusi, a ikisi*)

**Umearen zentzuna, etxean entzuna.**

(*umien sentzune, etzien entzune*)

**Zer ikusi, ha ikasi.**

(*zer ikusi, a ikisi*)



## BERBALAPIKOA

**antxinate**= antxinaro, antxinaldi, antxina-antxinako sasoi.

**arkaismo**= zahar-zaharra dan berbea.

**jantzi**= kultura, ikasi, jakintsu.

**bonbon**= oparo bizi, eurrez gastatu, ondasunak hondatu.

**burduntzi**= okelea erretoko erabilten dan burdinazko taketa.

**nekez**= oztan-oztan, zailtasunez.

**lazun**= bizkarbaltz, erreketan eta itsasoan dabilen arraina.

**opiltzu**= ogitsu, talotsu.

*Iniaki MARTIARTU*



## NIRE BURUARI LABUR

Egun euritsu ta ilunetan pozik, baserri zein urian bizi izanik, bedartza, larra eta basoa gurago, ke, zarata eta jende samaldea baino.

Hizkuntza ta herriaz arduraturik, ekonomia eta lana ahaztu barik, etxean zein lagunartean egonda, aurrerantza joateko asmoak hartuta.

*Iniaki MARTIARTU*



## BAKIOKO BIZIMODUA

Esanaldi laburrean eta ulertzeko moduan, euskera guztiz errezean azalduko dot behingoa, zelan bizi zein tekezan gure Bakioko herrian, moduz eta era erosoan, bizitza nahiko luzean.

Baldintza guztien artean behar da, gaurko egunean: etxea leku egokian, garbitasuna inguruan, lagun jatorrak auzoan, maitasuna sukaldian, danak alkartasunean bizitzeko era onean.

Barazki ederrak soloan egin ezkerok kakotan, fruitu gozoak baratzean lurra ondo landu ostean, jaki-edari onak etxean bertara gozanean. Holan gabilzan artean goserik ez da gurean.

Berotasuna odolean, osasuna gorputzean, itxaropena gogoan, argitasuna buruan eta prakak soinean daukaguzan bitartean, benetako zorionean biziko gara bakean.

Emazte ona alboan, ume zintzoak ondoan, sinismen sendoa aldean... Ze ederto, hemen lurrean...! Ganera, heriotz ostean izango gara, bai, zeruan zorionik bikainenean, betiketotasun guztian.

Oin biak tinko lurrean eta begiak zeruan, burua tente lepoan eta garaunak buruan, maitasuna bihotzean, bake giroa etxean, adiskideak auzoan, gorrotoak...bazterrean.

Txapela bere lekuan, diru apur bat sakelean, egunero aldarte onean, inoiz ez bakardadean, irribarrea agoan, zantzoka noizik-behinean, ekin beti, ahal dan erean... garaile gu, azkenean.

Jaungoikoaren legean bizi gura dogunean: beharrera astegunean ta eleizara igandean. Ondo bazkaldu ostean, lo kukutxu biagoan, batez be, udako sasoiaren egun luzea danean.

Atsedena hartu beharrean egonda solo ertzean, etzunduta gerizpean, guk geuk gura dogunean, ba...handik behingo batean gagoz indarrez betean, barriz hasteko moduan kementsu gure lanean.

Goizero egunsentian, etxe ondoko zugaztian, txoriak txioka bizian ta dantza zoragarrian. Arrautza bi sartaginean ta esnea katifuan. Hori... Bakio txikian, baina ez Bilbo haundian.

Nekatuz gure beharrean, etxera gatozanean ta jarririk mahai aurrean aurkitzen doguzanean: txakolina pitxarrean, salda beroa azpilean ta lukainka lapikoan... A, ze poza, sabelean...!

Izerdita beharrean etxera helduterakoan, idoro ezkerok atean andrea irribarrean: ta gero, jateko orduan, umeak mahai inguruan, bakez ta alkartasunean... Ze poztasun, bihotzean...!

Zoraturik beti urian dabilz itxura larrian. Erlojua eskuturrean eta korbata idunean, apal bizi beharrean, beti inoren menpean. Beharrean dagozanean, nagusi asko aurrean...

Bestala, era onean bizi gara gure herrian, askatasun ederrean, barruan eta kanpoan. Beti egoera nasaian, patxada zorionekoan. Bakotxak dauka gurean agintza bere eskuan.

Gure andrea etxean bizi da bake ez-titsuan. Bera da, ba, zuzenean, egiaz erregin gurean. Beti ahalegin betean, bere kabuz ta ardurapean, garbi ta era txukunean, etxea euki gurean.

Ezina da uri haundian bizi zintzotasunean, andrazkoak diranean ohituak haundikerian. Harrokeriak kalean, zorrak etxe bazterrean. Bihotza irrika gorian izaten da holangoetan.

Laguntxu, hau irakurtean esango dozu lehenean: eup! oraingo unean nago zagozalakoan amesetan oge apatzean, itxurazko lozorroan. Ba..., sarri zoritxarrean izaten gara gu etxean...

Zuri erantzun beharrean imini nozu oraingoan: ezina da gure munduan ibili zorion hutsean. Nonor beti dogu atzean guri kalte egin gurean. Benetako zorionean, lagun, hilda, han...zeruan.

*Martin GOITIA*

*1982ko BAKEA aldizkarian (Iniaki MARTIARTUK egokitua)*

### BERBALAPIKOA

**kakotan egin**= atxurketan egin, atxurtu.

**bikain**= itzelezko.

**tinko**= sendo, gogor.

**tente**= artez, zuzen.

**aldarte**= umore.

**garaile**= irabazle.

**lo kukutxu**= lotalditxu arina.

**biago**= bazkaldu osteko lotal-ditxua (Bakioko berbea).

**kementsu**= adoretzu.

**azpil**= plater.

**idoro**= aurkitu, topau.

**idun**= sama.

**bestala**= itzelean (Bakioko berbea).

**agintza**= aginduteko ahalmena.

**bere kabuz**= berak beratara.

**irrika**= irriki, zeozer egiteko/ eukiteko gogo handi-handia.

**apatz**= bigun-bigun (ogia).

«Asagoko intxaurrak, zarata asko.»

## TARTALO (Euskal ipuin zaharra)

Gorbeia mendiko, Arrabako larran, antxina baten Basajauna bizi ei zan. Haren izena TARTALO zan.

Tartalo pago tantai, zabal baten antzeko gizon ikaragarria zan. Gorputza bost ardi-narrutan estalduten eban eta. Enbor erdian idi-narruzko garriko zabala eta eskuetan makil astuna eroaten eban. Bekoki erdian begi bakar handia eukan.

Gorbeia mendian batetik bestera ibili ohi zan. Behinola baten, Gorbeia mendiko artzain bateri Tartalok ardi bat ostu eutson, eta artzaina, bildur barik, basajaunaren hatxulora ardi eske sartu zan. Baina ez eban Tartalo hatxulo barruan aurkitu.

Laster agertu zan hatxulo aurrean Tartalo bere artalde handiagaz. Hiru mila ardi ziran eta, artxoak eta bildotsak zenbatu barik.

Tartalok ardiak eta arkumeak bra-braka hatxuloan sartu ebazanean, harpearen agoa harri haundi astun batez itxi eban.

Sua iziotu eban, eta artzaina barruan ikusi ebanean, amorru bizian, orroaka, basazezenen antzera, itandu eutson:

- Kontxo, gizontxu, nondik sartu haz, bada? Zer galdu dok hemen nire hatxuloan?

Gaur gauean zer jana bajaukoat. Hire aragi bigunak bihar jango joadaz.

Eta hatxulotik iges ez egiteko, artzainari hatzamar txikian eratzun bat jantzi eutson, beti, gau ta egun ixildu barik, gedar egiten eban:

**Hemen nago! Hemen nago! Hemen nago!...**

Tartalok esnea egosi-éban eta ardi esne berok bete-bete egin zanean, ardien artean etzun eta besoak eta hankak zabal-zabal ipinita, lozorro astunean lotu zan.

Artzainak, orduan, ixil-ixilik, sugarretan ilenti bat bero-bero egin, eta bere beso bietako indar guztiaz, loarrantzaka egoanari, dzast! begi-begitik sartu eutson.

Izartara zanean, Tartaloren orroek hatxei be dardara eragiten eutseen. Haren aieneak,

haren gedarrak eta garrasiak!

Artzaina harrapatu ba eban, harrapatu, berrehun zati egingo eban!

Hurrengo egunean, eguzkia hatx ganetik agertu zanean, Tartalok ardiak, gura ta guraez, larrara atara behar izan ebazan, bedarra jaten emotera atara be.

Artzainak, ardiekaz nahastean, handik urteteko asmoa eukan, baina Tartalo, harrizarra kenduta, hatxuloko agoan imini zan. Artzaina, urtenkeran, zeozelan harrapatuteko asmotan edo.

Artzain bizkorak, orduan, hatzamar txikia bost ardi-narrutan biribildu eban, holan eratzunaren gedarrak asagokoak bailiran, Tartaloren belarrietara motel-motel helduten ziran.

Asmaketa zorrotz honeri esker, artzainak basajaunaren esku artetik iges egin ahal izan eban.

Artzainak hatxulotik iges egin eutsona Tartalok igarri ebanean, atzetik arineketa jarraitu eutson. Baina artzainak, bere burua estualdian ikusita, hatzamar txikia moztu eta eratzun ta guzti itsasora jaurtigi eban.

Tartalo itsuak, eratzunaren atzetik, itsaso sakonera blaus! egin eban eta Bizkaiko Itsasoa betiko ito egin zan.

(herri ipuina)

Iniaki MARTIARTU

### BERBALAPIKOA

larra= landa, zelai.

tantai= handitzar, kankailu.

hatxulo= harpe, koba.

artxo= arkume, jaió barri dan ardia.

bildots= arkume, urte bete baino gazteagoa dan ardia.

bra-bra= ardiei deituteko egiten dan ago-zaratea.

harpe= hatxulo, koba.

iziotu= biztu.

haz= zara. (hitanoa)

dok= dozu. (hitanoa)

bajaukoat= badaukat. (hitanoa)

joadaz= dodaz. (hitanoa)

loarrantzaka= lozurungaka, lokorronkaka.

ilenti= erdi erreta dagoan egur zatia.

garrasi= gedar kirrintzikaria, deadar kirrinkaria.

bailiran= balitzaz lez.

## BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



**VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari: Samurai berria.**

Nobela honetan Kosme Zubiaren istorioak topatuko doguz. Zubiak, euskal espiarik internazionalena, New York-en lanean, japoniarren enkargu misteriotsu bat bete behar dau. Hor ikusiko dogu bera hautsak harrotzen CIA eta FBI, informatikariak, kazetariak, Japoniako Yakuza, etab.

• • •

**FRIERA, Iñaki:**

**Non bizi da Bildur?**

Bizkaieraz idatzitako elebarri txikiaren sarrrera honako hau da:

“Nor ausartuko da Bildurren aurka egiten? Nork dau bildurren jaunari aurre egiteko behar dan adorea? Zuk? Holan bada, zabaldu eizu liburu honen orriok eta ekin irakurteari.” Ez zara bakarrik egongo, Mikel izango dozu laguntzaile.



• • •



**EGAÑA, Andoni eta SARASUA, Jon: Zozoak beleari.**

Andoni eta Jonen arteko gutunizketa hau irakurrita, euren jokabideak hobeto ulertu daikeguz. Batzuetan aurkajarriak emonda ere, bertsolaritzagazko

jarrera berberak, euskalgintzagazko ardura berberak, ... Euren eguneroko jardunean eten bat egin eta jardun horri buruzko hausnarketea jendaurrean egitea erabaki dabe Jonak eta Andonik, eta ez, gurean sarriegi jazoten dan lez, ardurak eta bildurrak lagunarteko autorpenetan itotea. Guretzat zorionez, hausnarketeak ez dau itxura akademikoaren kutsurik hartu, lagunarteko autorpen moduan emonda dagoz zalantzak, bildurrak eta generako ondorioak. Hausnarpn autor-tuez osotzen da liburu. Autorpen hausnartuez.

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdi gurera!

## eritxia



**“OTTO PETTE” - Anjel Lertxundi (LIBURUA)**

Liburu honetan Erdi Aroko zaldun baten istorioa, Otto Petterena, kontatzen da. Zelan erregearen alboan matxinoen kontra borrokatu eban, eta zelan matxinoen burua zan Erroldanen atzetik ibili zan. Jazokera guztiak izurrite baltzaren sasoiñ kokatzen dira.

Nire ustez, liburu hau oso aspergarria da, batez be lehenengo kapituluetan. Istorioan behin sartu ezkerro (benetan, gauza gatxa!), gustorago irakurri neban. Euskera aldetik, nahiko astuna iruditu jat.

Gehien gustatu jatazanak izurriteari buruzko azalpenak izan dira, eta gitxien amaiera, oso aspergarria dalako.

Ziortza GARAI



**«La vida es bella» (FILMA)**

Ez da txantxetako Roberto Benigni-ren film honek Oscar sarietan lortutako arrakasta. Izan be, bizipoz, sofrimendu eta itxaropenaren inguruan bilbatutako argumentu ezin biribilagoak mota guztietako ikusleak hunkitzeko modukoak da. Komedia dramatiko honek italiar judu baten istorioa kontatzen deusku. Pertsona alaitu eta irribera honen asmo bakarra zoriontsu bizi eta liburutegi baten jaubea izatea da. Dana dala, bigarren mundu gerra hasteagaz batera, juduek jazargo eta errepresino bortitza pairatu beharko dabe Italia osoan. Horrela, kontzentrazio zelai batera eroango dabe seme eta emazteagaz batera. Bertan, itzelezko ahaleginak egingo dauz semeak itxaropena eta bizitzeko ilusino galdu ez daian.

Joseba TERREROS

# DATUZANAK

## Hurrengo hilabeteotan gure kultureagaz makinatxubat hitzordu dogu Euskal Herrion. Adi egon, bada!

**Aberri Eguna**, apirilaren 4an, hainbat lekutan.

**Luzaideko Ihauteria**, apirilaren 4an, Luzaiden.

**Euskal Idazleen Biltzarra**, apirilaren 5ean, Saran.

**Gaita Eguna**, apirilaren 10ean, Bastidan.

**Busturialdeko Dantzari Txikien Eguna**, apirilaren 18an, Mundakan.

**Besta Musikala**, apirilaren 21etik 25era, Miarritzen.

**Nafarroaren Eguna**, apirilaren 25ean, Baigorriin.

**Armentiako Erromeria**, apirilaren 27an, Gasteizen.

**Musika Barrien Jaialdia**, apirilaren 27tik 30era, Donostian.

**Euskal Herriko Dantzari Eguna**, maiatzaren 2an, Laudion.

**Maiatza Dantzan**, maiatzaren 6tik 28ra, Donostian.

**Herri Urrats**, maiatzaren 9an, Senperen.

**Hip Hop Jaialdia**, maiatzaren 14tik 16ra, Donostian.

**Musikaren Eguna**, maiatzaren 14tik 16ra, Urdiñarben.

**UEMA Eguna**, maiatzaren 16an, Zeanurin.

**Bizkaiko Dantzari Eguna**, maiatzaren 16an, Sondikan.

**Xiberoko Jauzien Eguna**, maiatzaren 23an, Irabarnen.

**Donibane Lohitzuneko Euskal Jaia**, maiatzaren 30ean, Donibane Lohitzunen.

**Ibilaldia**, bagilaren 6an, Elorriin.

**San Antonio Jaia**, bagilaren 13an, Urkiolan.

**Afrikako Musika Jaialdia**, bagilaren 18tik 20ra, Donostian.

**Araba Euskaraz**, bagilaren 20an, Lapuebla de Labarkan.

**Doniene Jaia**, bagilaren 24an, Bakion.

**Rock Jaialdia**, bagilaren 25etik 26ra, Bilbon.

**San Pedro Jaiak**, bagilaren 25etik garagarriaren 4ra, Mungian.

**Nazioarteko Jazzaldia**, garagarriaren 1etik 5era, Getxon.

**Euskal Herria Zuzenean**, garagarriaren 2tik 4ra, Arrosan.

**Derioko Ikastaroa**, garagarriaren 5etik 17ra, Derion.

**Sanferminak**, garagarriaren 6tik 14ra, Iruñean.

**Gasteizko Jazzaldia**, garagarriaren 10etik 16ra, Gasteizen.

**Baionako Jazz Festibala**, garagarriaren 16tik 21era, Baionan.

**Baztandarren Biltzarra**, garagarriaren 18an, Elizondon.

**UEU**, garagarriaren 19tik 30era, Iruñean.

**Jazzaldia**, garagarriaren 22tik 27ra, Donostian.

**Errobiko Festibala**, garagarriaren 23tik 24ra, Itsasun.

**Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia**, garagarriaren 23tik 30era, Portugaleten.

# barregaiak

## Osagilearenean

- Zein da zure gatxa?, -itaundu deutso osagileak gaixoari.

- Gomutamenik eza.

Osagileak, telefonoaren deiari erantzuteko joan eta etorri ostean:

- Zer esan deustazu lehen?, -itaundu deutso barrian.

- Ba, ahaztu egin jat!

## Ardiak

Artzain batek besteari:

- Ez dakit zenbat ardi daukadazan.

- Zelan, ba?

- Hara, zenbatuten hasi baino ez, loak hartuten nau.

## Idazkerea

Ikasle bi, biok biotara:

- "GAUR" g-gaz idatzi behar da, -dino batek.

- Eta atzo?

- Bera barik.

- Egun batetik bestera, ez dot ulertuten holako aldaketea.

## badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95	94 619 31 18
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07	
Udaltzaingoa	929 435 666	94 619 31 18
<b>sos</b> Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia (Carlos Uriarte)	94 619 41 79	
Taxia (Bilbao Ugalde)	94 619 42 50	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 10 98/05 44	
Autobusa (Túñez-Sánchez)	94 688 31 71/03 21	





# atzera begira

Urteen joanean, ETXE PINTOKO eskolan hainbat herriko mutiliek ikasi dabe. Argazkikoek, esate baterako. Aor dagoz danak zintzo-zintzo, zeruko aingeruak balitzaz lez. Bai! Batek daki zelango okerkerietan ibiliko ziran mutil bardingook. Argazkia 1932. edo 1933. urtekoa da, Errepublikarean sasoiakoa, hatan be. Anaiearen janzkerak hori adierazoten deusku eta.

Ezkerretik eskoira eta goitik beheera, bada, honeexek doguz:

1. erreskadan: Jose Mari Ugalde (GARAI) - Jose Foruria (ELEIZALDE) - Alejandro González (BUTROETXE) - Lorenzo San Juan (MARI-TAILER) - Manuel Larrazabal (GOIKOLEA) - Jesus Zabala (IBERRETXE) - Juan Arrugaeta (URIBARRI) - Mario Zabala (BASIGO).
2. erreskadan: Jose Luis Uriarte (URKITZAURRE) - Raimundo Barturen (ZAITUA BEAZKOA) - Jesus Maruri (LORREA) - Antonio Laradogoitia (ZABALE) - Anaia Jose - Luzio Egiluz (BENGURIENE) - Julian Garai (ARDANTZA) - Juan Garai (BENGOLEA).
3. erreskadan: Migel Larrauri (ERROTATXU) - Jose Mari Larrauri (ERROTATXU) - Juan Beraza (HERRIKO TABERNA) - Jesus Ormaza (URKITZA) - Migel Elorriaga (ORMATZA) - Manuel Ugalde (BEKOERROTA) - Ruperto Ugalde (BEKOERROTA) - Balero Barturen (GOIKOLEA) - Juan Luis Barturen (GOIKOLEA)

(Argazkia: Mari Angeles Larrazabalek itzita)